

ADIK
ZIO
EN
VII. Plana

Euskadi 2017-2021

2021 TXOSTENA
ADIKZIOEN VII. PLANA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

VITORIA-GASTEIZ, 2023

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan
aurki daiteke:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia:

1.a, 2023ko iraila

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioa

Egileak:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

Osasun Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastian k, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

Diseinua eta Maketazioa:

Osasun Publikoaren Eta Adikzioen Zuzendaritza

Osasun Saila

**Osasun Publikoaren
eta Adikzioen
Zuzendaritza
2021eko txostena
Adikzioei buruzko VII.
Plana**

Aurkibidea


	Orria
Sarrera	3
Prozesuaren adierazleen laburpena	5
Ekintzak 2021	23
1. ARDATZA: Adikzioen prebentzioa eta osasunaren sustapena	24
2. ARDATZA: Eskaintza murriztea	44
3. ARDATZA: Asistentzia sanitarioa eta soziosanitarioa, eta gizarteratzea	48
4. ARDATZA: Ezagutzaren kudeaketa, prestakuntza eta ebaluazioa	56
5. ARDATZA: Lidergoa eta koordinazioa	64

Sarrera

Adikzioen VII. Planaren 2021eko ekitaldiko ebaluazio-txosten honen bidez, aldi horretan abiarazitako ekintzei buruzko ikuspegi orokorra eman nahi dugu, planaren garapen-maila ezagutzeko. Planaren azken helburua EAeko biztanlerian substantzien edo substantziarik gabeko adikzioen eragina murriztea da. Jarraipena hainbat prozesu-adierazletan oinarrituta egin da, jarduketa-lerroen ezarpen progresiboa ebaluatzeko.

Prozesuaren adierazleetatik abiatuta, planaren helburuak lortzeko egindako lanaren aurrerapena neurtu da. Informazioa adikzioen planean inplikaturako eragile guztiek egindako lanari buruz bildutako datuetatik lortu da; adibidez, Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, toki-erakundeak, hirugarren sektoreko erakundeak eta, oro har, sektore publikoa.

Txosten honetan, alde batetik, planaren ardatz bakoitzaren prozesuaren adierazleak jaso dira, eta, bestetik, 2021ean helburuak lortzeko egindako ekintzak.



https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/44_plandep_xileg/eu_def/adjuntos/VII_plan_adicciones_eu.pdf

Aipatzekoa da COVID-19aren pandemiak eragin handia izan duela 2020an eta 2021ean, adikzioen prebentzioan eta tratamenduan egindako lanean.

Prozesuaren adierazleen laburpena

Adikzioen VII. Planak prozesuaren adierazle batzuk ezarri ditu, ardatz eta helburu bakoitzean diseinatutako ekintzen ezarpena ebaluatze aldera. Eskema horretan oinarrituta, hurrengo epigrafean prozesuaren adierazle horien garrantzia aztertzen da, 2021ean zer-nolako aurrerapena egin den jakin ahal izateko.

1. ARDATZA. ADIKZIOEN PREBENTZIOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENA

2018an, aplikazio informatiko bat jarri zen abian Osasun Sailaren adikzioen arloko laguntzen deialdira aurkezten diren toki-erakundeek eta GKEek emandako datuak ustiatzeko, eta harrezkero, etengabeko hobekuntza-lana egin da, programa eta proiektuek lortutako emaitzen eta irismenaren adierazleen ebaluazio zehatzagoa lortzeko asmoz.

lido horretan, 2019tik 2021era, laguntzen izapidetzearen eta datuen ustiapenaren aplikazioaren eskaera- eta justifikazio-ereduak hobetzen jarraitu da. Horri esker, erregistratutako informazioa errazago zuzendu eta araztu ahal izan da, eta, ondorioz, erakunde eskatzaileek egindakoarekin bat datorren emaitzen ebaluazio are doituagoa eta leialagoa lortu da.


Parte-hartzaileen kopurua areagotzea prebentzio unibertsaleko proiektuetako arlo hauetan: eskola, familia eta komunitatea. Guztira, eta sexuaren arabera bereizita. Abiapuntua (2017).

Taula honetan, prebentzio unibertsaleko proiektuen eta jarduketa-eremuetan parte hartzen duten pertsonen kopuruari buruzko informazioa jaso da. Herritar guztiei zuzenduta dago.

Toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak laguntzen aginduaren bidez egindako proiektuen eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak zuzenean kontratatutako zerbitzuen baturaren emaitza dira datu hauek.

		Eremua		
		Eskola	Familia	Komunitatea
2017	Proiektu kop.	100	38	40
	Parte-hartzaileak, guztira:	126.612	11.607	16.749
2018	Proiektu kop.	63	31	29
	Gizonak	75.085	3.082	13.391
	Emakumeak	83.002	5.625	13.519
	Parte-hartzaileak, guztira:	158.087	8.657	26.910
2019	Proiektu kop.	61	27	31
	Gizonak	71.213	2.807	15.006
	Emakumeak	73.777	6.170	14.352
	Parte-hartzaileak, guztira:	144.990	8.977	29.358
2020	Proiektu kop.	57	29	27
	Gizonak	52.010	1.601	4.054
	Emakumeak	52.270	4.917	6.532
	Parte-hartzaileak, guztira:	104.280	6.518	10.586
2021	Proiektu kop.	69	26	28
	Gizonak	66.131	1.687	5.276
	Emakumeak	65.855	4.350	5.638
	Parte-hartzaileak, guztira:	131.986	6.037	10.914

Oharra: Parte-hartzaileen kopurua toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak emandako datuetatik lortu da; beraz, baliteke bikoiztasunen bat egotea parte-hartzaileen zenbaketan.



Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, 2021ean handitu egin da eskola-eremuko parte-hartzaileen kopurua. Hala ere, familian eta komunitatean 2020an izandako atzerakadari eutsi zaio.


Parte-hartzaileen kopurua areagotzea substantzien kontsumoei eta adikzioa sortzeko arriskua duten gehiegizko jokabideei lotutako arriskuak arintzeko proiektuetan, eta arrisku-egoeran edo ahultasun-egoeran dauden kolektibo eta pertsonengan arlo hauetan: eskola, familia, komunitatea eta aisia eta jai. Guztira, eta sexuaren arabera berezita. Abiapuntua (2017).

Taula honetan prebentzio selektiboaren helburuaren barruan lortutako emaitzak jaso dira. Jarduketa-lerro horretan biltzen dira populazio-maila edo -talde jakin batengana zuzentzen diren proiektuak, hau da, ezaugarri edo faktore espezifikoren bat dela-eta, adikzioen aurrean arrisku eta kalteberatasun handiagoa duten populazioarengana.

Toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak laguntzen aginduaren bidez egindako proiektuen eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak zuzenean kontratatutako zerbitzuen baturaren emaitza dira datu hauek.

		Eremua			
		Eskola	Familia	Komunitatea	Aisia eta jai
2017	Proiektu kop.	42	18	32	47
	Parte-hartzaileak, guztira:	43.321	1.663	16.920	34.585
2018	Proiektu kop.	26	12	31	26
	Gizonak	16.561	545	6.574	25.246
	Emakumeak	14.378	899	6.679	16.722
	Parte-hartzaileak, guztira:	30.939	1.444	13.253	41.968
2019	Proiektu kop.	28	11	19	26
	Gizonak	16.586	478	4.745	24.779
	Emakumeak	17.889	1.017	3.856	18.869
	Parte-hartzaileak, guztira:	34.475	1.495	8.601	43.648
2020	Proiektu kop.	30	11	17	14
	Gizonak	14.946	366	1.717	6.590
	Emakumeak	16.098	536	1.601	5.722
	Parte-hartzaileak, guztira:	31.044	902	3.318	12.159
2021	Proiektu kop.	29	10	28	16
	Gizonak	20.189	417	7.482	7.141
	Emakumeak	20.714	700	4.815	5.933
	Parte-hartzaileak, guztira:	40.903	1.117	12.297	13.074

Oharra: Parte-hartzaileen kopurua toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak emandako datuetatik lortu da; beraz, baliteke bikoiztasunen bat egotea parte-hartzaileen zenbaketan.



Grafikoak argi eta garbi erakusten du eskola-eremuan prebentzio selektiboko proiektuetan parte-hartze handiagoa izan dela, eta 2021ean parte-hartzaile kopurua pixka bat handitu dela. Familia eta aisia eta jaiaren eremuko 2020ko joerari jarraitzen dio. Komunitate-eremuan ere, aurreko urtearekin alderatuta, parte-hartzaileen kopuruak gora egin duela ikus daiteke.

Parte-hartzaileak areagotzea alkohol, tabako eta kalamuaren kontsumoaren prebentziorako programa espezifikoetan. Guztira, eta sexuaren arabera bereizita.

Taula honetan, **edari alkoholdunen, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoa prebenitzeko proiektu espezifikoan hartzaileen** kopurua jasotzen da. Toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak laguntzen aginduaren bidez egindako proiektuen eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak zuzenean kontratatutako zerbitzuen baturaren emaitza dira datu hauek.

		Proiektu kop.	Gizonak	Emakumeak	Parte-hartzaileak, guztira:
2018	Alkohola	10	14.117	10.119	24.236
	Tabakoa	6	4.929	6.646	11.575
	Kalamua	5	1.785	1.665	3.450
2019	Alkohola	8	18.565	14.706	33.270
	Tabakoa	3	4.804	4.808	9.612
	Kalamua	3	691	361	1.052
2020	Alkohola	6	2.928	2.900	5.828
	Tabakoa	3	1.628	4.387	6.015
	Kalamua	1	46	15	61
2021	Alkohola	8	6.153	5.858	12.011
	Tabakoa	3	2.384	2.981	5.365
	Kalamua	1	275	275	550

Oharra: Parte-hartzaileen kopuruak bikoiztasunen bat izan dezake, ezinezkoa baita proiektu bakoitzeko pertsonak identifikatzea.

Esku hartzeko eredu bat garatzea drogen kontsumoa eta bestelako adikzioak murrizteko tokiko mailan. Eredu horrek komunitateari eta hiri-ingurunekeo determinatzaileei buruzko informazio fidagarria izango du.

Tokiko mailan garatzen den interbentzio-eredua udalekin eta mankomunitateekin koordinatzen da. Bi mekanismoren bidez gauzatzen da: Osasun Sailaren laguntzen agindua eta Eusko Jaurlaritzaren eskutik prebentzio-zerbitzuak zuzenean kontratatzea.

- a) Laguntzen aginduaren bidez, talde teknikoak sortzea eta mantentzea eta toki-erakundeek programak garatzea bultzatzen da.

Taula honetan ikus daitekeenez, **adikzioen tokiko plana duten toki-erakundeetako talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko** laguntzen lerroaren barruan, 33 eta 36 udal eta mankomunitatek hartzen dute parte urtero.

Prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntzetan parte hartzen duten toki-erakundeek kopurua.

	2017		2018		2019		2020		2021	
	Talde teknikoek kopurua	Emandako zenbatekoa	Talde teknikoek kopurua	Emandako zenbatekoa	Talde teknikoek kopurua	Emandako zenbatekoa	Talde teknikoek kopurua	Emandako zenbatekoa	Talde teknikoek kopurua	Emandako zenbatekoa
Araba	4	198.280	4	191.322	4	177.383	3	175.078	4	210.116
Bizkaia	19	666.489	20	652.532	20	687.001	20	687.260	20	729.558
Gipuzkoa	11	309.366	12	330.281	10	309.751	10	311.797	10	234.461
Guztira	34	1.174.135	36	1.174.135	34	1.174.135	33	1.174.135	34	1.174.135

Adikzioen prebentzio komunitarioko eta jokabide osasungarrien sustapen-programak garatzeko laguntzen kapituluak, 43 eta 45 toki-erakunde inguruk eskatu ohi dituzte laguntzak. Hala ere, 2020an 39 eskaera erregistratu ziren, ziurrenik pandemiak udal-programa eta -proiektuen garapenean izandako eraginagatik. Baina 2021etik aurrera, prebentzio komunitarioko tokiko programen kopuruak bere ohiko dinamika berreskuratu du.

Prebentzio komunitarioko programak garatzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntzetara jotzen duten toki-erakundeek kopurua.

	2017		2018		2019		2020		2021	
	Toki-erakundeek kopurua	Emandako zenbatekoa	Toki-erakundeek kopurua	Emandako zenbatekoa	Toki-erakundeek kopurua	Emandako zenbatekoa	Toki-erakundeek kopurua	Emandako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa	Toki-erakundeek kopurua
Araba	3	53.413	3	52.327	3	54.552	2	57.683	3	58.896
Bizkaia	23	296.458	22	273.376	22	279.678	21	289.600	22	281.951
Gipuzkoa	18	211.895	20	236.062	18	227.535	16	214.482	18	220.918
Guztira	44	561.765	45	561.765	39	561.765	39	561.765	43	561.765

- b) Hainbat prebentzio-zerbitzu ematea, Eusko Jaurlaritzak zuzenean kontratatuta.

Eusko Jaurlaritzak lehiaketara atera ditu batez ere gazteenei zuzendutako hainbat programa, eskola-eremuan eta aisia eta jaien eremuan adikzioen prebentzioa bultzatzeko eta sustatzeko. Komunitate-eremuan ere, herritarrak oro har sensibilizatzeko hainbat kanpaina egiten dira.

	Kontratu kop.	Zenbatekoa
2017	13	409.686
2018	13	437.681
2019	11	396.083
2020	9	174.690
2021	8	314.284
Guztira	54	1.732.424

COVID-19aren eragina dela eta, aisia eta jaien eremuan eta komunitate-eremuan, ezin izan dira osorik egin arriskuak prebenitzeko eta murrizteko kaleko programak.


2. ARDATZA: ESKAINTZA MURRIZTEA

Salaketa kopurua lurraldeen arabera, sektoreen arabera, salatzailen arabera eta arau-hauste motaren arabera.

Apirilaren 7ko 1/2016 Legeak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak, ikuskaritza- eta zehapen-eskumenak banatzen ditu alkatetzen, adikzioen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren, Gobernu Kontseiluaren eta arlo sozialean eta sanitarioan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailen artean, betiere zehapen motaren eta mailaren arabera. Horregatik, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak tabakoarekin lotutako arau-hauste astunetan eta edari alkoholduen sustapen eta publizitatearen arloan bakarrik du horretarako eskumena, eta prozedura horiei buruzko informazioa baino ez du eskura. Datu horiek oinarritzat hartuta, honako ondorio hauek atera dira tabakoari dagokionez:

Salaketak lurraldearen arabera: 2016an –urte horretan jarri zen indarrean 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa– erregistratu ziren salaketa gehien. Harrezkero, salaketen kopuruak behera egin du, eta 2019an Bizkaian apur bat gora egin zuten arren, 2020an eta 2021ean berriro behera egin dute, pandemia-egoeraren ondorioz. Beherakada nabarmenagoa izan da 2021ean.

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Araba	56	31	42	41	26	6
Bizkaia	153	124	104	128	100	75
Gipuzkoa	59	28	46	43	35	11
Guztira	268	183	192	212	162	92



Salaketak sektorearen arabera: Bestalde, 2016tik 2021era ostalaritzaren sektorean gertatu ziren salaketa gehien, eta joko-establezimenduetan gero.

Salaketak sektorearen arabera

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira
Ostalaritza	176	125	129	114	120	72	736
Kulturgunea/Aisialdiko gizarte-zentroa	5	1	4	1	0	0	11
Lantokia	6	2	0	0	0	1	9
Garraiobidea/Garraio publikoa	0	0	2	3	2	0	5
Kirol zentroa/Ikuskizun publikoa	11	6	20	6	4	0	47
Merkataritza-gunea/Galeria/Saltokia	6	7	12	23	17	6	71
Zentro sanitarioa	0	0	1	0	0	0	1
Zerbitzugunea	0	1	0	0	0	0	1
Haurrentzako parkea	1	1	0	0	0	4	6
Joko-establezimendua	61	38	24	62	13	7	205
Jabeen erkidegoa	2	2	0	0	2	0	6
Hezkuntza-zentroa	0	0	0	2	1	0	3
Erakunde publikoa	0	0	0	0	0	0	0
Aireportua	0	0	0	0	3	2	5
Bide publikoa	0	0	0	1	0	0	1

Salaketak, salatzailearen arabera: Udaltzainek egin dituzte salaketa gehien, eta Ertzaintzak horien ondoren.


Salaketak, salatzailearen arabera

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira
Ertzaintza	106	49	87	93	41	15	391
Udaltzaingoa	114	96	74	78	111	31	504
Pribatua	31	27	22	25	8	41	154
Guardia Zibila	16	0	9	16	2	5	48
Osasun publikoko eta ofizioko ikuskaria	0	11	0	0	0	0	11
Jabeen erkidegoa	1	0	0	0	0	0	1

Salaketak arau-hauste motaren arabera: Aurkeztutako datuek Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzan erregistratutako salaketei egiten diete erreferentzia. Erregistratutako salaketa guztietatik, establezimenduetan eta baimendu gabeko lekuetan erretzen uzteagatik egin dira gehienak.

Salaketak arau-hauste motaren arabera

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira
Tabakoa/Nikotina aska dezaketen gailuen salmenta	15	11	13	19	21	8	87
Erretzen uztea	142	127	112	125	96	75	677
Erretzea	106	44	67	65	45	9	336
Seinaleztapenik eza	5	1	0	3	0	0	9
Publizitatea/sustapena	0	0	0	0	0	0	0



Bestelako esku-hartzeak:

– Tabakoari dagokionez:

- Kasuan kasuko udalerrietako alkateei erretzearen arau-haustearekin lotutako salaketen berri ematea, organo horiei baitagokie tabakoaren arloan arau-hauste arinak zehatzea.

2016	2017	2018	2019	2020	2021
45	44	67	65	45	9

- Informazio-jarduketak, salaketa jaso duten erakunde edo pertsoneri zuzenduta, tabakoaren arloan aplikagarri den araudiari buruzkoak.

2016	2017	2018	2019	2020	2021
25	19	10	12	17	41

– Edari alkoholdunei dagokienez:

- Kasuan kasuko udalerrietako alkateei edari alkoholdunekin lotutako arau-hauste arinen eta astunen (edari alkoholdunen kontsumoa eta salmenta) inguruko salaketen berri ematea, organo horiei baitagokie zehatzeko eskumena. 2016an ez zen jaso horrelako informaziorik.

2017	2018	2019	2020	2021
26	6	0	3	5

- Edari alkoholdunen legez kontrako publizitateari buruzko ofizioko jarduketak, adikzioen arloko Eusko Jaurlaritzako organo eskudunari baitagokio edari alkoholdunen sustapenari eta publizitateari buruzko arau-haustek zehatzea. 2016an ez zen jaso horrelako informaziorik.


2017	2018	2019	2020	2021
1	1	0	0	1

Zehapen kopurua, salaketa kopuruari dagokionez.

1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, 2016ko apirilaren 14an jarri zen indarrean. 95. artikuluan, zehatzeko eskumena zehazten da. Tabakoaren arloko arau-hauste astunei buruzko zehapenei dagokienez (erretzen uztea eta tabakoaren salmenta), Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari baitagokio horien eskumena, 357 zehapen-espediente itxi dira, 2021era arte jasotako 764 salaketetatik.

Tabakoa erretzen uzteagatik edo tabakoa saltzeagatik ezarritako zehapenak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira
Araba	20	7	11	17	3	1	59
Bizkaia	65	47	41	40	36	9	238
Gipuzkoa	17	11	10	17	5	0	60



Zehapenen ordezeko neurri alternatiboen kopurua.

Zehapenen ordezeko neurri alternatiboak	
	Neurri alternatiboen kopurua
2017	25
2018	62
2019	137
2020	152
2021	120

Oharra: Informazio hori udalek jasotako datuetatik lortu da.

2018az geroztik, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea garatzeko dekretu bat lantzen ari dira, apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 93. artikuluan aurreikusitako neurri alternatiboak arautzeko. 2019an eta 2020an, dekretua aztertu eta analizatzeko aurretiazko fasea garatu da. 2021ean dekretu-proiektua egin da, Gobernu Kontseiluak 2022ko uztailaren 12an, asteartean, onartua. 2022an onartzea eta indarrean jartzea aurreikusten da.

Akordioak edo kanpainak aisialdi, merkataritza eta ostalaritzako enpresa-erakundeekin.

Bai aisia eta jaiaren eremuan garatutako sentsibilizazio-kanpainak, bai ostalaritzako profesionalak eta gazteekin harremanetan lan egiten duten profesionalak prestatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak toki-erakundeetako prebentzio komunitarioko talde teknikoekin koordinatuta egiten dira, bai eta udaletako eta mankomunitateetako jai-batzordeekin ere.

- Taula honetan ikus daitekeenez, COVID-19aren pandemiaren eragina dela-eta 2020an izan ezik, alkoholaren kontsumoarekiko sentsibilizazio-kanpainan EAEko 20 udal eta mankomunitatek baino gehiagok parte hartu ohi dute.

Alkohol-kontsumoaren aurrean sentsibilizatzeko ZAINDU kanpaina:

	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira, lurralde historikoaren arabera
Araba	3	3	5	0	5	16
Bizkaia	14	10	13	0	11	48
Gipuzkoa	5	8	7	0	4	24
Guztira	22	21	25	0	20	88

Oharra: Erakundeetatik 3 Arabako 3 kuadrilla dira, eta horien adikzio-plana Arabako Foru Aldundiarena da.

- Adingabeekin harremanetan lan egiten duten profesionalen prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa. Ostalaritzako, txosnetako eta jai-batzordeetako langileek parte hartzen dute programa horretan. Helburua da alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin lotutako arriskuak murrizteko prestakuntza ematea, drogen kontsumoarekin lotutako egoerei aurre egiteko baliabideak eskuratzea eta, gainera, prebentzio-mezu bat transmititu ahal izatea. Esan bezala, 2020ko garapena

testigantzakoa da, baina 2021ean hogeita hamar toki-erakundek hartu dute parte programa horretan.

Tailer kopurua, lurralde historikoaren arabera.

	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira
Araba	3	3	4	0	6	16
Bizkaia	13	18	13	0	12	56
Gipuzkoa	6	7	15	2	12	42
Guztira	22	28	32	2	30	114

3. ARDATZA: ASISTENTZIA SANITARIOA ETA SOZIOSANITARIOA, ETA GIZARTERATZEA

Adikzio-arazoak dituzten eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen kopurua, arreta integrala sustatzen duten baliabideetan arreta jasotzen duena.

Adikzio-arazoak dituzten eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen kopurua, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin hitzartutako baliabideetan arreta jasotzen dutena

	2017		2018		2019		2020			2021			Guztira		
	G	E	G	E	G	E	G	E	TRANS	G	E	TRANS	G	E	TRANS
Arreta-premia txiki eta larrialdi soziosanitario arinetarako eguneko baliabidea, baztertze sozialeko egoeran dauden droga-mendekoentzat	396	88	347	80	365	77	329	62	2	308	56	3	1.745	363	5
Adikzioak artatzeko Bilboko zentro soziosanitarioa «Andén 1»	358	74	344	68	323	55	283	60	0	312	53	0	1620	310	0
«HONTZA» larrialdiko eta harrerako gaueko zentroa	464	163	575	155	532	127	382	87	0	342	45	0	2295	577	0
GUZTIRA	1.208	325	1.266	303	1.220	259	994	209	2	962	154	3	5660	1.250	5

Toxikomaniei buruzko Informazio Sistemak (TIS), Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak garatu duenak, hiru adierazle hauetan oinarrituz jasotzen ditu datuak: tratamenduaren adierazlea, larrialdien adierazlea eta hilkortasun-adierazlea. Tratamenduaren adierazleak honako informazio hau hartzen du barne: substantzia psikoaktiboak gehiegi hartzeagatik edo haiekiko mendekotasuna izateagatik zenbatek hartzen duten toxikomaniak tratatzeko tratamendua EAEn (Osakidetzako zentroetan edo hitzartutako zentroetan edo zentro pribatuetan). Orain arte, ez ditugu 2021ean erregistratutako datuak.

Harrera kopurua, substantziaren arabera. 2020

Substantzia nagusia	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Alkohola	635	248	883
Kokaina	380	47	427
Kalamua	298	50	348
Anfetaminak	70	31	101
Heroina	83	14	97
Hipnotikoak eta lasaigarriak	23	12	35
Speeda	17	4	21
Beste opiaceo batzuk	12	8	20
Beste substantzia psikoaktibo batzuk	18	1	19
Heroina eta kokaina	15	3	18
Beste estimulatzaile batzuk	14	3	17
Haluzinogenoak	14	2	16
Substantzia lurrunkorrak	1	0	1
Estasia	1	0	1

Iturria: Tokikomaniei buruzko Informazio Sistema Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila Ez ditugu 2021ean erregistratutako datuak.

Tratamendua hasten duten pertsonen kopurua, ikasketen arabera. 2020

Ikasketa-maila	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Ez daki irakurtzen, ezta idazten ere	6	4	10
Ez du Derrigorrezko Lehen Hezkuntza amaitu	170	38	208
Derrigorrezko Lehen Hezkuntza amaitu du	477	101	578
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu du	266	72	338
Batxilergoa edo erdi-mailako heziketa-zikloa amaitu du	386	101	487
Goi-mailako ikasketak amaitu ditu	129	65	194
Ezezaguna	147	42	189
GUZTIRA	1.581	423	2.004

Iturria: Tokikomaniei buruzko Informazio Sistema Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila Ez ditugu 2021ean erregistratutako datuak.

Tratamendua hasten duten pertsonen kopurua, lan-egoeraren arabera. 2020

Lan-egoera	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Lan-harreman mugagabea edo autonomia	436	100	536
Aldi baterako lan-harremana	156	50	206
Soldatarik gabe lanean, familiaren alde	7	3	10
Langabetua, aurretik lan egin ez duena	101	27	128
Langabetua, aurretik lan egin duena	506	129	635
Ezgaitasun iraunkorra, pentsioduna	160	44	204
Ikasten edo oposizioak prestatzen ari da	88	15	103
Etxeko zereginak egiten ditu soilik	1	19	20
Beste egoera batean	98	24	122
Ezezaguna	28	12	40
GUZTIRA	1.581	423	2.004

Iturria: Tokikomaniei buruzko Informazio Sistema Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila Ez ditugu 2021ean erregistratutako datuak.

Adikzio-arazoak dituzten emakumeei zuzendutako esku-hartze espezifikoaren kopurua.

	2017	2018	2019	2020	2021
Adikzio-arazoak dituzten emakumeei bideratutako hirugarren sektoreko erakundeen proiektu kopurua	2	4	2	2	2
Adikzio-arazoak dituzten emakumeei bideratutako toki-erakundeen proiektu kopurua	1	0	0	0	0

Toxikomaniengatiko tratamendu-harreraren guztizko kopurua. 2020

Gizonak	1.581
Emakumeak	423
GUZTIRA	2.004

Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Sistema Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila Ez ditugu 2021ean erregistratutako datuak.

Osakidetzak egindako interbentzioen kopurua tabakismoaren tratamenduari dagokionez (esku-hartze laburra, intentsiboa, motibaziozko laguntza, tratamendu farmakologikoa).

Tabakismoaren tratamenduaren eskaintza Osakidetzako Lehen Mailako Arretako kontsultetan bideratzen da. Horietan, hainbat laguntza-aukera eskaintzen zaizkie erretzeari uztea erabaki duten pertsonen, beren beharretara eta egoeretara gehien egokitzen dena aukera dezaten.

	Taldeko terapia			Banakako terapia		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2017	543	372	915	1.076	989	2.065
2018	306	218	524	944	915	1.859
2019	427	253	680	1.040	1.019	2.059
2020	324	282	606	3.983	3.837	7.820
2021	190	98	288	2279	2362	4641

Iturria: Osakidetza

Taulan, eskaintutako esku-hartze mota guztiak jaso dira. Taldeko terapietan online arreta eta aurrez aurrekoa sartzen dira. Gauza bera gertatzen da banakako terapiekin. Aurrez aurreko terapietara eta telefonikoez gain, terapia konbinatua ere badago, hau da, tratamendu horrek app baten erabilera eta erreferentziako profesionalarekin aurrez aurre edo telefono bidez aritzeko aukera konbinatzen ditu. Banakako esku-hartze presentziala da ugariena oraindik ere, eta gizonen aukeratzen dute gehien. Hala ere, emakumeek gehiago erabiltzen dituzte taldeko terapiak, batez ere online.

Terapia mota bakoitzean 2021ean parte hartu duten pertsonen kopurua erakusten dute taula hauek.

Taldekoa, aurrez aurrekoa			Taldekoa, online		
Gizona	Emakumea	Taldekoa guztira	Gizona	Emakumea	Taldekoa guztira
24	45	69	74	145	219

Banakakoa, aurrez aurrekoa			Banakakoa, telefonoz			Banakakoa, konbinatua		
Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira
2.221	2.150	4.371	41	41	82	96	85	181

Substantziarik gabeko adikzioen inguruko programa espezifikoaren kopurua.

Hirugarren sektoreak garatutako proiektuak eta toki-erakundearen prebentzio komunitarioko programak bultzatzen dituen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntzen aginduaren bidez, substantziarik gabeko adikzioei berariaz heltzen dieten proiektu hauek finantzatu dira.

	Toki-erakundearen prebentzio komunitarioko programak			Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko hirugarren sektoreko erakundearen proiektuak				
	Erakunde kopurua	Proiektu edo programa kopurua	Hartzaileen kopurua	Erakunde kopurua	Proiektu edo programa kopurua	Hartzaileen kopurua		
2017	0	0	0	6	8	3.794		
2018	0	0	0	8	11	6.230		
2019	9	9	4.442		7	12	10.716	
			G	E			G	E
			2.170	2.272			5.605	5.111
2020	3	4	179		11	14	6.859	
			G	E			G	E
			63	116			3.701	3.158
2021	4	4	2.632		13	17	8.019	
			G	E			G	E
			1.326	1.306			4.364	3.655
Guztira	16	17	7.253		45	62	35.618	

2021ean, toki-erakundeek eta hirugarren sektoreko erakundeek 4 prebentzio-proiektu aurkeztu dituzte; substantziarik gabeko adikzioen prebentzioa modu eksklusiboan lantzen dute. Jokabide-adikzioen programa edo proiektu espezifikoetan 42.871 parte-hartzaile izan dira planaren indarraldian.

4. ARDATZA. EZAGUTZAREN KUDEAKETA, PRESTAKUNTZA ETA EBALUAZIOA

Adikzioen gaian Osasun Sailak emandako laguntzen ebaluazioa sendotzea, genero- eta geografia-ekitatearen ikuspuntutik, baita hezkuntzaren arlokoetan ere, hornidura motaren arabera (publikoa, hitzartua edo pribatua).

2021ean, informatikako arloarekin lanean jarraitu da dirulaguntzen eskaerak eta justifikazioak telematikoki egiteko aplikazioa hobetze aldera. Horrela, ahalik eta gehien erraztu nahi da horien izapidetzea, baita lortutako informazioaren kalitatea hobetu ere. Lortutako datuak sexuaren arabera bereizita agertzen dira, genero-ikuspegia barne hartuta. 2021ean, toki-erakundearen 181 proiekturen eta hirugarren sektoreko 78 proiekturen emaitzen irismenari buruzko informazioa aztertu da.

Substantziek eragindako eta substantziarik gabeko adikzioen eremuko ezagutza hobetzeko gauzatutako ikerketa kopurua areagotzea (kuantitatiboak, kualitatiboak edo ikerketa-ekintza), ekitatearen ikuspuntutik. Abiapuntua (2017).

Adikzioen arloko ikerketak Eusko Jaurlaritzako Adikzioen Zerbitzuak berak eta haren erakunde laguntzaileek egiten dituzte, hala nola SIIS (Euskadiko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroa), Droga-mendekotasunen Deustuko Institutua, Kriminologiaren Euskal Institutua eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Ikerketa kopurua

2017	2018	2019	2020	2021
6	7	9	6	5

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari lotutako erakundeen prestakuntza-ekintzen kopuruaren egonkortasuna. Abiapuntua (2017).

Prestakuntza-ekintzen zati bat SIISek (Euskadiko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroa) eta IDDK (Droga-mendekotasunen Deustuko Institutua) egiten dute dirulaguntza izendunen bidez.

Prestakuntzaren beste zati bat Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak betetzen du zuzenean. 2021ean, Adikzioen Zerbitzuak parte hartu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Osasunaren Sustapena eta Osasun Komunitarioa Masterreko Jokabide Osasungarrien Sustapena moduluan.

	Prestakuntza-jarduera	Ikasle kopurua		Jardueraren orduak
2017	7	342		71
2018	6	157		56
2019	7	325		112
		G	E	
2020	13	386		73
		G	E	
2021	8	145		59

Droga-mendekotasunen Euskal Behatokiaren webgunea berriz diseinatzea eta eguneratzea, baita Adikzioen Zerbitzuaren webguneko gainerako apartatuak ere.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Adikzioen egungo webguneak 5 apartatu espezifiko ditu: Drogei eta adikzioei buruzkoa; GABIA: Adikzioen Euskal Behatokia; Programak, planak eta bestelako jarduketak; Laguntza bilatzen ari zara? eta sentsibilizazio-eremua. Apartatuak bakoitzaren beharren arabera eguneratzen dira (adikzioen arloko dirulaguntzen prozesua argitaratzea, dekretu berriak, substantzia berriei buruzko informazioa, azterlan eta txostenen argitalpena, programen egutegia, Drogomedia etengabe eguneratzea, etab.). 2021ean aipatzekoa da Jardunbide Egokien eta Ibilbide Profesionalaren Aitorpenaren prozedura, Elkar Eginez.

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/mendekotasunak/hasiera/>

2021ean Gabia-Droga-mendekotasunen Euskal Behatokia erregistratutako bisiten kopuruak gora egin du apartatu guztietan 2020arekin alderatuta.

Kanpoko bisiten erregistroa Gabia-Droga-mendekotasunen Euskal Behatokia

	2017	2018	2019	2020	2021
Adikzioei buruzko EAEko Inkesta	45	651	1.791	1.264	1.646
Jardunbide egokiak	85	232	191	178	188
Alerta-sistemak	65	268	176	124	134
Argitalpen teknikoak	50	295	455	346	473
Adikzioen eta droga-mendekotasunen baliabideak	15	1.499	1.620	1.470	1.241

2021ean bisiten kopuruak gora egin du webguneko apartatu guztietan.

Kanpoko bisiten erregistroa adikzioen webguneko beste apartatu batzuetan

	2018	2019	2020	2021
Adikzioen hasiera	10.363	9.290	6.809	6.478
Drogei eta adikzioei buruz Jokabide-adikzioak	6.170	11.711	17.869	18.266
Adikzioei buruzko Euskadiko VII. plana.	3.495	1.573	1.385	1.446
Non bilatu laguntza?	1.811	3.003	2.772	3.273
Kerik gabeko gazteak	1.764	1.980	1.365	1.186
Drogei eta adikzioei buruz Anfetamina	1.789	3.913	-	9.752
Drogei eta adikzioei buruz Kokaina	1.304	3.886	-	14.670
Drogei eta adikzioei buruz LSDa	-	10.007	-	31.947

Oharra: 2018an ez zen LSDaren inguruko bisiten erregistrorik kontabilizatu.

Drogomedian erregistratutako datuei dagokienez, 2021ean beherakada txiki bat izan da bisiten kopuruan.

Drogomediako bisiten erregistroa

2017	2018	2019	2020	2021
24.493	31.265	58.939	59.000	57.556

5. ARDATZA. LIDERGOA ETA KOORDINAZIOA

Prozesuaren adierazleak

Bilera kopurua adikzioen arloko araudia betetzen eta planak garatzen inplikatur dauden agenteekin.

Bilera kopurua

2017	37
2018	59
2019	78
2020	38
2021	82 (Kerik Gabeko Guneaken 38)

Adikzioen Euskal Kontseiluaren eta Adikzioen Erakunde arteko Batzordearen saio kopurua.

	Adikzioen Erakunde arteko Batzordea	Adikzioen Euskal Kontseilua
2017	2	1
2018	0	0
2019	1	1
2020	0	0
2021	1	1

Ekintzak

2021

1. ARDATZA: Adikzioen prebentzioa eta osasunaren sustapena

HELBURU NAGUSIA: Osasunaren sustapena bultzatzea, pertsonak gaitu daitezzen beren osasun-determinatzaileetan kontrol handiagoa izateko, aukera osasungarriak eta trebetasunak eskuratzea errazten duten inguruneak sortuta, baldin eta ingurune horiek substantzien eskaria murrizten eta adikziorik gabeko bizitza bat izaten laguntzen badute. Eta, aldi berean, babeserako faktoreak indartzea, adikzioen eragina eta prebalentzia murriztea eta horien aurrekari diren arrisku-faktoreak eta -jokabideak gutxitzea.

1.1 helburua. Osasuna sustatzea eta prebentzio unibertsala indartzea, adikzioen eredu bio-psikosoziala eta ikuspegi komunitarioa abiaburu hartuta, sektorearteko lana, erakunde arteko koordinazioa eta hirugarren sektorearekiko eta beste agente batzuekiko lankidetzara bultzatuta.

Ekintzak:

1.1.1 Osasuna baldintzatzen duten gizarte-alorreko elementuak eta osasun-alorreko ekitatearen ikuspegia sartzeari adikzioen alorrean lan egiten duten gizarteko eta erakundeetako zenbait sektoreekin gauzatu behar diren esku-hartzeetan.

- Eusko Jaurlaritzako Adikzioen Zerbitzuak sistematikoki txertatzen ditu osasuna baldintzatzen duten gizarte-alorreko elementuak partaidetza propioarekin zein kanpo-betearazpenarekin bultzatzen diren azterketa eta lanetan. Hala, irizpideak sartzen dira honako hauek kontuan hartzeko: auzoen maila sozioekonomikoa, gizonen eta emakumeen parte-hartzea beren premien arabera, adin-taldeak beren ezaugarri propioekin eta hirien zein herrien ordezkariak. Unibertsaltasun proportzionalaren printzipioa aplikatzen da. Horren arabera, biztanleria guztiarentzat eskuragarriak diren ekimen unibertsalak jartzen dira abian, eta arreta berezia jartzen da populazio-talde kalteberenengan.

1.1.2 Komunitatearen partaidetza sustatzea tokiko sareetan, osasuna eta ongizatea sortzen duten eta adikziozko jokabideak saihesten laguntzen duten faktoreak identifikatzeko, arreta berezia jarriz zaurgarritasun-egoeran dauden gizarteko taldeetan.

Pandemia-egoerak eragotzi egin du planean aurreikusitako ekintza hori garatzea.

1.1.3 Gainerako erakunde eskudunekin batera, osasuna sustatzeko eta adikzioen prebentzio unibertsalerako programak eta jarduketak sustatzen jarraitzea familian, eskolan, aisialdian, komunitatean eta lan-esparruan. Zehazki:

- Osasuna sustatzeko eta prebentzio unibertsalerako baliabide didaktikoak eta tresna espezifikokoak sortzea hezkuntza-komunitatearentzat.
- Osasuna sustatzeko eta prebentzio unibertsalerako baliabide didaktikoak eta tresnak prestatzea hezkuntza ez-arautuan eta ez-formalean aplikatzeko.
- Adingabeen eta gazteen artean jokaera osasuntsuak eragiteko gaitasunak, trebetasunak eta tresnak sustatzea.
- Aisialdi alternatibo eta osasuntsurako ekimenen garapena sustatzea pertsona gazteentzat (eskola-ordutegitik kanpo).
- Jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko dauden programak babestea.
- Lanean osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko programak babestea, Osalanekin elkarlanean arituz. Horretarako, droga-mendekotasunen eta adikzioen gainean jarduteko programak, akordioak eta hitzarmenak garatuko dira lan-eremuan, horien ondorioak murrizteko helburuarekin.

• **Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntzen agindua.** • Hirugarren sektoreko erakundeei eta toki-erakundeei, udalei eta mankomunitateei zuzenduta dago, adikzioen arriskuak prebenitzeko eta murrizteko eta osasunaren sustapenerako proiektuak garatzeko, bai eta adikzioen prebentzio komunitarioko taldeak mantentzeko ere.

Aurrekontu osoa 2021. urterako: 2.854.400 €.

Elkarrekin Podemos legebiltzar-taldeak aurkeztutako 23. zuzenketarekin bat etorriz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legearekin bat etorriz, arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko hirugarren sektoreko erakundeen proiektuak finantzatzera bideratutako zenbatekoa 236.000 € zabalitzen da. «EAEen ausazko jokoarekiko adikzioa eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuk prebenitzea eta tratatzea» helburu duten proiektuak diruz laguntzera bideratuko da zenbateko hori.

Zenbatekoen banaketa laguntza-lerro bakoitzeko, 2017tik 2020ra

Urtea	Talde teknikoei eustea		Toki-erakundeen prebentzio komunitarioko proiektuak		Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko hirugarren sektoreko erakundeen proiektuak		Guztira
	Entitate kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	
2017	34	1.174.135	328	561.765	65	882.500	2.618.400
2018	36	1.174.135	179	561.765	72	882.500	2.618.400
2019	34	1.174.135	179	561.765	67	882.500	2.618.400
2020	34	1.174.135	162	561.765	72	1.118.500	2.854.400
2021	33	1.174.135	181	561.765	76	1.118.500	2.854.400

Agindua 2021eko uztailaren 9an argitaratu zen.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/07/2103911e.pdf>

Emandako dirulaguntzak argitaratzeko ebazpena 2022ko maiatzaren 26an argitaratu zen.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/05/2202280e.pdf>

Toki-erakundeen eta hirugarren sektoreko erakundeen proiektuak, lurralde historikoen arabera, 2021ean

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Proiektuak guztira
	Proiektu kopurua	Proiektu kopurua	Proiektu kopurua	
Toki-erakundeak	85	83	13	181
Hirugarren sektorea	48	16	14	78

- 2021ean, arriskuak eta kalteak murrizteko 78 proiektu egin dituzte hirugarren sektoreko erakundeek, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan. Horietatik 22 prebentzio unibertsalekoak dira.

Hirugarren sektoreko erakundeen prebentzio unibertsaleko proiektuak 2021ean


Proiektu kopurua	ESKOLA			FAMILIA			KOMUNITATEA		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
	15			2			5		
Parte-hartzaile kop.	7.412	7.518	14.930	82	168	250	1.193	687	1.880

- Gainera, hurrengo taulan ikus daitekeenez, toki-erakundeek prebentzio unibertsaleko 98 proiektu garatu dituzte, eta guztira 80.663 pertsonak parte hartu dute proiektu horietan. Nabarmenezkoa da toki-erakundeek egindako prebentzio unibertsaleko proiektu guztietatik gehienak hezkuntza-esparruan garatzen direla, 51 proiektu guztira, eta, ikasleen artean, 34.673 mutilek eta 34.024 neskek parte hartzen dutela.

Toki-erakundeen prebentzio unibertsaleko proiektuak 2021ean

Proiektu kopurua	ESKOLA			FAMILIA			KOMUNITATEA		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
	51			24			23		
Parte-hartzaile kop.	34.673	34.024	68.697	1.636	4.056	5.692	3.014	3.260	6.274

- **Eskola-eremuko alkohol-kontsumoaren prebentzio unibertsalerako ICEBERG programa, DBHko ikasleei zuzendua.** Emozioen kudeaketan eta asertibitatearen garapenean oinarritzen da. Hiru oinarritan egituratzen da: substantzia, ingurunea eta pertsona. 2021ean, 24 tailerretan egin da, 2 udalerritako 3 ikastetxetan, eta guztira 528 ikaslek parte hartu dute.



https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_alcohol_programas/eu_def/adjuntos/10.%20Nerabeeek%20zergaitik%20ez%20dute%20alkoholik%20edan%20behar.pdf

• **Arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programa, alkohol-kontsumoari buruzkoa.** DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasleentzat da, eta Eusko Jaurlaritzak zuzenean finantzatua eta toki-erakundeek bultzatua.

	Tailer kopurua	Ikastetxe kopurua	Parte hartu duten ikasleen kopurua	Udalerrri kopurua
2017	268	98	4.735	53
2018	277	96	5.100	46
2019	255	87	4.844	52
2020	224	75	4.331	35
2021	298	105	5.368	38

• **Alkohol-kontsumoaren prebentzioa eskola-ingurunean arte eszenikoen bitartez** (Mimarte antzerki-proiektua).

	Antzeppen kopurua	Udalerrri kopurua	Parte-hartzaileen kopurua	
2017	36	27	2.238	
2018	40	23	2.300	
2019	61	27	3.709	
			G	E
			1.678	2.031
2020	4	2	310	
			G	E
			163	147
2021	67	22	2.366	
			G	E
			1.247	1.119

Taula honetan Mimarte programari buruzko datu guztiak jasotzen dira, bai Eusko Jaurlaritzak zuzenean finantzatutako antzeppenak, bai toki-erakundeek bultzatutakoak. 2021ean, programa berriz aktibatu da eta aurreko edizioetan baino emanaldi gehiago egin dira, nahiz eta edukiera murriztearen ondorioz 2.366 pertsonak parte hartu duten.



<http://www.teatromimo.com/Etdm/index.html>

- **Jai-eremuko esku-hartze prebentiboak**, 1.3.12 ekintzan deskribatuak: testingak, alkoholimetriak eta lonjak.
- **Adingabeekin harremanetan lan egiten duten profesionalak prestatzeko eta sentsibilizatzeko programa.** Programa horretan, ostalaritzako, txosnetako, jai-batzordeetako langileek, aisialdiko begiraleek, kaleko hezitzaileek edo udaltzain edo ertzainek parte hartzen dute.

	Tailer kopurua	Udalerrri kopurua	Profesional kopurua	
2017	22	23	302	
2018	28	16	335	
2019	32	15	322	
			G	E
			148	174
2020	2	1	21	
			G	E
			12	9
2021	30	17	411	
			G	E
			213	198

Programaren bidez, parte-hartzaileek trebetasunak eskuratzen dituzte drogen kontsumoarekin lotutako egoera konplexuetan nola jokatu jakiteko, eta, batez ere, prebentzio-mezu bat barneratu eta bere egiten dute, gero adingabeei eguneroko lanean helarazteko.


- **Kerik Gabeko Gazteak** programa. «Euskadi tabako-kerik gabe» strategiaren barnean, trukerako eta elkarriketarako programa bat da eta tabakoarekin lotutako zenbat gai jorratzea du helburu. Bertan parte hartzen dute Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek, eta hezkuntza-komunitate eta familia guztiak inplikatzeko. Ekimen horren helburua da EAEko ikasleen artean tabako-kontsumoa saihestea edo kontsumitzen hasteko adina atzeratzea, nerabeen artean jokabide osasuntsuak garatzea eta tabako-kerik gabeko eskola-ingurune bat bermatzea. 2020-2021 ikasturtean, unitate didaktiko berri bat sartu da programan: «Kalamuari buruzko mitoak».

Programa honen amaieran, ikasleek lehiaketa batean parte hartuko dute eta, bertan, irudi bat egin beharko dute ikasturte bakoitzean proposatutako gaiarekin lotuta.

Pandemiaren eraginez, 2020an eta 2021ean ezin izan da lehiaketa antolatu, ezta sariak eman eta ikasle guztiei oparia eman ere. Hala ere, programaren webgunea aktibo egon da une oro.

Kerik Gabeko Gazteak

	Parte hartu duten ikasleen kopurua				Ikastetxe kopurua			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
2016-2017	1.497	2.782	1.900	6.179	18	33	26	77
2017-2018	1.946	2.787	2.549	7.282	21	31	27	79
2018-2019	1.572	2.875	2.139	6.586	12	34	30	76
2019-2020	1.151	3.045	1.667	5.863	10	37	24	71
2020-2021	608	1.573	1.331	3.512	4	16	19	39



<http://www.euskadi.eus/informazioa/kerik-gabeko-gazteak/web01-a3tabaco/eu/>

- **Kerik gabeko gazteak – Kerik gabeko Araba.** «Tabako-kerik gabeko Euskadi» estrategiaren barruan, ekintza komunitario bat da, eta herritar guztien artean eta, bereziki, gazteen artean bizimodu osasuntsuak sustatzeko ahaleginak bateratzea du helburu. Profesional hauek daude: Gasteizko Udaleko Hezkuntza zerbitzukoak, Osakidetzako Arabako Eskualdekoak, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Prebentzio Komunitarioko lantaldeetakoak, Amurrioko Udalekoak, Laudioko Udalekoak eta Eusko Jaurlaritzakoak, Arabako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordearen bitartez.

<https://arabasinhumo.wordpress.com/>

- **Kerik Gabeko Hondartzak.** Jarduketa hau 1.1.5 ekintzan dago jasota.
- **IKTen, sare sozialen, ausazko jokoan eta kirol-apustuen arriskuak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak,** Eusko Jaurlaritzak finantzatuak laguntzen aginduaren bidez:
 - Sare sozialen eta IKTen arriskuak murrizteko tailerrak: Prebentzio-tailerrak lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, sare sozialak eta teknologiak egoki erabiltzeko haien ezagutzetan oinarrituta. 753 gizon eta 771 emakumek hartuko dute parte. (Etorkintza fundazioa).
 - Ausazko jokoan eta kirol-apustuen arriskuak prebenitzeko tailerrak: 15 eta 23 urte bitarteko nerabeekin eta gazteekin ausazko jokoeekin eta apustuekin lotutako arriskuei buruzko informazio-, sentsibilizazio- eta murrizketa-tailerrak, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, batxilergoan, erdi-mailako heziketa-zikloetan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan, bai eta beste espazio batzuetan ere, hala nola lonjetan, gazteguneetan edo ikastetxeetako jolastokietan. 491 gizon eta 264 emakumek hartuko dute parte. (Etorkintza fundazioa).

- Bideojokoen gehiegizko erabileraren aurrean gurasoen bitartekaritzarako gida: Adingabeen ardurapean dauden helduei zuzendutako gida bat garatzea eta online argitaratzea, euskaraz eta gaztelaniaz, bideojokoen erabileraren/gehiegikeriaren aurrean laguntzeko hezkuntza-tresna gisa. (Teknologien erabilera osasungarria sustatzeko elkarte).
- Nerabeen joko patologikoaren prebentzio unibertsalerako proiektua: Hezkuntza-izaerako prebentzioa, ebidentzia zientifikoan oinarritua, jokoaren prebalentzia eta arrisku-faktoreak murrizteko eta babes-faktoreak indartzeko. DBHko 4. mailako, batxilergoko 1. mailako eta erdi-mailako heziketa-zikloetako ikasleentzat. Teknikari espezialistek eta tutoreek gauzatuko dute. 623 gizon eta 372 emakumek hartuko dute parte. (Agipad).
- TEKNIA proiektua: Lehen Hezkuntzako eta DBHko azken mailako haur eta nerabeentzako (9-16 urte) prebentzio-programa. Gurasoei zuzendutako tailer eta hitzaldien bidez. Web orria diseinatu, eraiki eta garatu ere egingo dute, lanaren euskarri gisa. Podcast-en bidez, ikastetxeko prebentzio-ekintzen bidez (Oriepsi) jaso duten informazioa modu erakargarrian osatuko dute xede-talde nagusiarentzat.
- Toki-erakundeek, kasu gehienetan, adikzioen prebentzioari ikuspegi globaletik heltzen diote, eta prebentzio-proiektu berean txertatzen dituzte substantziadun eta substantziarik gabeko adikzioak. Horren ondorioz, gutxi dira informazioaren teknologien erabilerari lotutako arriskuak prebenitzeko berariazko proiektuak, baina aipatzekoa da Bilboko Udalak garatutako proiektua, «Substantziarik gabeko adikzioak prebenitzeko proiektua» izenekoa. Proiektu horren helburua da nerabeei eta gazteei trebetasun pertsonalak eta baliabideak ematea, mendekotasunak sor ditzaketen jokabideen aurrean arduraz joka dezaten.

• **Mugiment Programa:** Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak sustatuta. Programa horrek kirol- eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatzen du, tokiko jarduera fisikoa sustatzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin eta Osasun Sailarekin, foru-aldundiekin eta hainbat udal eta erakunderekin batera. 96 erakundek parte hartzen dute programan, eta ahaleginak eta ekimenak batu, EAEn jarduera fisikoa sustatzeko, gizarte aktiboa lortzeko eta sedentarismoa murrizteko.

• Osasun Sailak honako laguntza hauen deialdia egiten du, **tokiko eremuan jarduera fisikoa, osasuna eta ikasleen mugikortasun aktiboa sustatzeko:**

- Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzeko ekintzak garatzeko laguntzak.
https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2021/jarduera-fisikoa-sustapena-ige/web01-tramite/eu/
- Tokiko eremuan osasun-sustapeneko programak garatzeko laguntzak 2021.
[Tokiko eremuan osasun-sustapeneko programak garatzeko laguntzak 2021 - Osasun Saila - Euskadi.eus](http://www.euskadi.eus/tokiko-eremuan-osasun-sustapeneko-programak-garatzeko-laguntzak-2021-osasun-saila-euskadi.eus)
- Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak garatzeko laguntzak.
[Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen jarduera fisikoa sustatzeko ekintzak garatzeko laguntzak 2021 - Osasun Saila - Euskadi.eus](http://www.euskadi.eus/euskal-autonomia-erkidegoko-ikasleen-jarduera-fisikoa-sustatzeko-ekintzak-garatzeko-laguntzak-2021-osasun-saila-euskadi.eus)

1.1.4 Hezkuntza-curriculumetik, osasuna eta babesa sortzen duten faktoreen garapena sustatzea adikzioen aurrean.

- **Adingabeak eta Alkohola programak** hezkuntza-curriculumean bizi-ohitura osasungarriak hartzeari eta adikzioak prebenitzeari buruzko erreferentzia sartzeko beharra ezartzen du, ikasleek autorregulazio-kompetentziak barnera ditzaten eta drogen kontsumoarekin lotutako arriskuak eta mendekotasuna sor dezaketen jokabideak uler ditzaten.

Adingabeak eta Alkohola programan planteatutako ekimen hori kontuan hartuta –Osasun Saila eta Hezkuntza Sailaren arteko koordinazio-lan baten ondorioz sortua–, adikzioen prebentzioa EAEko curriculumean txertatzen da, **Heziberri 2020 Planaren** esparruan, hezkuntza-maila eta -ziklo guztietan osasunaren sustapenari eta adikzioen prebentzioari buruzko erreferentzia batzuk txertatzen baititu.

Esate baterako, oinarrizko hezkuntzan eta batxilergoan drogen kontsumoaren (batez ere alkohola, tabakoa eta kalamua) eta substantziarik gabeko adikzioen prebentzioa sartzeko da, honako kompetentzia hauekin: norberaren osasuna eta ongizatea zaintzeko autorregulazioa, izaten ikasteko kompetentzia, kompetentzia zientifikoa, kompetentzia digitala, mugimena, etab. Osasunerako gizarte-ohitura positiboak eta bizimodu proaktiboa sustatzea da helburua, baita gizarte-ohitura negatiboek buruzko hausnarketa kritikoa egitea ere; sedentarismo pasiboarekin, elikadura desegokiarekin, atsedetik ezarekin eta drogen kontsumoarekin edo mendekotasun-jokabideekin lotzen dira ohitura horiek.

Heziberri 2020: <https://www.euskadi.eus/heziberri/aurkezpena/web01-a3hbhezi/eu/>

1.1.5 Adikzioek pertsonen osasunean, bizi-kalitatean eta ingurunean duten eraginaren aurreko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-ekintzak garatzea. Zehazki:

- **Kanpainak eta bestelako ekintzak, herritarrak substantzia jakin batzuei eta jokabide-adikzioei buruz sentsibilizatzeko, bereziki indar eginez gizartearen onarpen handiagoa duten substantzia jakin batzuen kalteei buruz (alkohola, besteak beste) eta gazteei eragiten dieten adikzioei buruz.**
 - **Batez ere hezkuntzako eta komunikazioko profesionalei zuzendutako jarduerak.**
 - **Sare sozialetako komunikazio-estrategien diseinua eta ezarpena.**
 - **Adikzioen alorreko informazioa eta ezagutza hedatzen laguntzeko helburuarekin, komunikabideetan komunikazio-estrategia bat garatzea, bereziki EITBn eta titulartasun publikoko beste hedabide batzuetan.**
- **ZAINDU** markak, 2017tik, **alkoholaren eta legez kanpoko beste droga batzuen** kontsumoari buruz herritarrak oro har sentsibilizatzeko kanpaina eta ekintza guztiak identifikatzen ditu:
 - ZAINDU mugikorretarako aplikazioa, 2018tik aktibo eta 2019an berrikusia, nerabe, gazte, guraso, haurdun eta hezkuntzako, ostalaritzako eta erakundeetako eragileei zuzendua. Alkohol-kontsumoaren ondorioei buruzko ebidentziak eskaintzen ditu, baita kontsumo horren inguruko mito faltsuak baliogabetzeko arrazoiak ere.



- Adingabeekin harremanetan lan egiten duten profesionalak prestatzeko eta sentsibilizatzeko programa. 1.1.3 ekintzan aipatzen da.
- «Aukeratu udako argazkia» kanpaina, jai-inguruneetan alkohola kontsumitzeak duen arriskuari buruz sentsibilizatzeko. Drogen kontsumoarekin eta mendekotasun-jokabideekin lotutako arriskuen aurrean prebentzio-mezuak zabaltzen dira toki-erakundeekin koordinatuta eta jai-batzordeekin, konpartsetako arduradunekin, txosnetako arduradunekin, ostalaritzako profesionalekin eta abarrekin lankidetzan. Kanpainak hainbat laguntza-material ditu, eta aholkua ematen zaie jai- eta aisialdi-eremuetan biltzen diren pertsoneri. Material horrek barne hartzen ditu kartelak, alkoholometro kualitatiboak, informazio-triptikoak edo alkoholak organismoan duen eragina neurtzen duten erregeletak, adinaren, generoaren eta pisuaren arabera.

Banaturako materiala

	Toki-erakundeen kopurua	Kartelen kopurua	Erregeleten kopurua	Alkoholimetroen kopurua
2017	22	1.500	6.000	5.350
2018	21	1.000	9.000	9.000
2019	26	655	13.300	12.950
2020	0	0	0	0
2021	20	475	10.700	10.900

- Alkohol-kontsumoaren prebentzioari buruzko materialak banatzeko kanpaina, lehen mailako arretako zentroetan. Adingabeak eta Alkohola programaren eta Osakidetzak alkohol-kontsumoa diagnostikatu, tratatu eta prebenitzeko egindako protokoloaren esparruan, urtero banatzen dira ZAINDU markako materialak. Alkoholaren prebentziorako aholkua emateko erabiltzen dira material horiek.

Triptikoak:

- «Alkoholari buruz jakin behar duzuna» «Zaindu zure gorputza. Zaindu zure haurra»



Banatutako materiala

	Ikastetxe kopurua	Banatutako triptico kopurua
2017	16	6.000
2018	16	6.000
2019	9	6.800
2020	0	0
2021	13	5.300

2021ean eta 2020an, COVID-19aren pandemiaren eragina dela eta, Osakidetzak ez du alkoholaren prebentziorako aholkua emateko materialik eskatu, baina, toki-erakundeekin bat etorriz, 5.300 triptico banatu dira alkohol-kontsumoaren prebentziorako, «Alkoholaz jakin», 13 udal eta mankomunitatetan.

• **Tabako-kerik gabeko Euskadi estrategiaren kanpainak:**

- **Tabakorik Gabeko Munduko Eguna** zela eta, 2021eko maiatzaren 26an prentsaurreko bat egin zen, eta bertan izan ziren Gotzone Sagardui Osasuneko sailburua, Itziar Larizgoitia Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria eta Victor Bustamante Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko zuzendaria. Bertan adierazi zen 7.820 pertsonak hasi dutela erretzeko ohitura uzteko tratamendua, betiere Osakidetzaren gainbegiratze profesionalaren pean, hau da, kopuru hori aurreko urtean baino 3,7 aldiz handiagoa da. Kerik Gabeko Hondartzak ere martxan jarriko dela iragarri zen. Proposamen horren helburua da tabakoaren kontsumoa desnormalizatzea eta kerik gabeko giro bat sortzea, adingabeen presentzia handia duen aisialdi-ingurune horretan kontsumo pasiboa saihesteari begira.

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/69375-numero-participantes-programas-para-dejar-fumar-triplica-2020>

- 2021etik, pandemiaren ondorioz, ez da erretzeari uzteko laguntza-materialik banatu.

Tabakoa erretzeari uzteko materiala

	Kartelak	Triptikoak	Gidak
2017	1.000	180.000	60.000
2018	1.000	180.000	60.000
2019	600	34.200	10.300
2020	0	0	0
2021	0	0	0



- 2021eko udan, **Kerik Gabeko Hondartzak** ekimena jarri zen abian. Jarduera hori pilotaje batekin hasi zen 2021ean Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat hondartzatan. Zehazki, Gipuzkoan, Itzurun eta Santiago hondartzetan (Zumaia), Araban Garaio hegoaldean (Burgelu) eta Bizkaian, Laida eta Lagan (Ibarrangelu) eta Laidatxu eta Ondartzape hondartzetan (Mundaka).

Erakundeen arteko lankidetzako esku-hartze bat da, hondartzetako erabiltzaile guztiei zuzendua bainu-denboraldian, eta autonomia-erkidegoko hondartzak tabako-kerik gabeko eta kontsumo horrek sortzen dituen hondakinik gabeko eremu izatea du helburu. Gainera, hurrengo urteetan, proiektura hondartza gehiago atxikitzea da xedea, hala, tabako-kerik gabeko hondartza-sare bat eratzeko.

1.1.5 Esku-hartzeak garatzea, biztanleria gizonaren ikuspegia nagusi den osotasun homogeneotzat ulertu gabe. Horrela, genero-ikuspegia txertatuko da adikzioek kasuan-kasuan sortzen dituzten gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biologiko, psikologiko, sozial eta kulturaleri erreparatuz.

- Duela zenbait urtetatik, **genero-ikuspegia sartzea** beharrezkoa da Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen **laguntzen aginduko balorazio-irizpide gisa**; adikzioen arloko programa batek ikuspegi hori hartuko du, baldin eta diseinatu, gauzatu eta ebaluatzean gizon eta emakumeen egoera, baldintza eta behar desberdinak aintzat hartzen baditu.
- Jokabide-adikzioak dituzten emakumeentzako arreta. Languntza-taldea; 8 emakumek hartzen dute parte, eta ASAJERek egiten du, Osasun Sailaren laguntzen aginduaren bidez.

- Prebentzioa eta osasun integrala sustatzea bazterkeria, adikzio eta arrisku handiko egoeretan. Besarkatuz elkartea arduratzen da, egoera horiek emakumeengan duten eragina ikusaraziz eta haien ahalduntze-prozesuan lagunduz. Aurreko urteetan aurkeztutako proiektua zabaldu da. Krisi sanitarioaren eragina murriztu nahi da, eta, horretarako, entzuteko, lasaitzeko, sarea sortzeko, laguntzeko eta deskonexiorako espazioak bultzatzen dituzte, zaintza emozionalerako eta osasun mentalerako.

- Azterketa bat egitea, genero-indarkeria pairatzen duten eta adikzioak dituzten emakumeak detektatzera eta bideratzera zuzendutako protokolo bat garatzeko, genero-ikuspegitik. Osasunaren, adikzioen eta indarkeriaren eremuko langileei zuzenduta dago. Emaitei buruzko txosten bat egin da, emakume horiei arreta emateko gida bat egin ahal izateko (Deustuko Unibertsitateko Droga-mendekotasunen Deustuko Institutua).

1.1.6 bis EAEko farmazia komunitarioaren dimentsiorik zabal eta eraginkorrena sustatzea, babestea eta garatzea adikzioen prebentzioari dagokionez, eta horretarako lankidetzak-zehaztea, farmazialarien elkargo ofizialekin eta farmazia-bulegoekin elkarlanean.

- Farmaziek osasuneko agente gisa jarduten dute tabakoarekiko mendekotasuna gainditzeko, tabako-kontsumoaren prebentziorako edo metadona emateko orduan. 2021ean, urteko tarteren batean 356 farmaziak parte hartu dute metadona emateko programan.

1.1.6 ter Planaren helburu, ardatz eta ekintzen artean, kontsumo arduratsuari buruzko aipamenak sartzea, kontsumoa eta eskaintza murriztea bera bezain garrantzitsua baita.

- Adikzioen VII. Planaren 1.4 helburuak adierazten duenez, herritarren arrisku-pertzepzioa handituko duten jarduerak sendotu behar dira, gehien kontsumitzen diren eta gizartean onarpen handiena duten drogei dagokienez. Horrez gain, 17. ekintzak Adingabeak eta Alkohola programaren garapena ezartzen du. Programa horren azken helburua da alkohol-kontsumoa prebenitzea eta adingabeak babestea.

Programa horren esparruan, hainbat ekimen nabarmendu behar dira, hala nola alkohola emateko prestakuntza eta sentsibilizaziorako online materiala prestatzea, jatetxeetako eta ostalaritzako profesionalei zuzendua. Material horrekin batera, ohitura osasungarriak sustatzeko programa bat garatuko da, jatetxe- eta jai- eta aisialdi-eremuko profesionalei zuzendua hori ere. Prestakuntza- eta kontzientziazio-tailer batzuk egingo dira.

- **Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin lotutako arriskuak murrizteko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa, gazteekin eta adingabeekin harremanetan lan egiten duten profesionalentzat.**

Tailer kopurua, lurralde historikoaren arabera.

	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira
Araba	3	3	4	0	6	16
Bizkaia	13	18	13	0	12	56
Gipuzkoa	6	7	15	2	12	42
Guztira	22	28	32	2	30	114

<https://www.euskadi.eus/informazioa/sentsibilizazio-gunea/web01-a3alcoho/eu/>

Aurreko taulan ikus daitekeenez, COVID-19aren pandemiak 2020an eragin zuen geldialdiaren ondoren, egindako tailerren kopurua 2020an 2 izatetik 2021ean aurreko edizioen antzeko kopurua izatera igaro da.

1.2 helburua Osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa bultzatzea arrisku-egoera berezietan edo egoera bereziki ahuletan dauden pertsonen edo taldeen artean.

Ekintzak:

1.2.7 Arrisku eta kalteberatasun bereziko egoeretan dauden familia, adingabe eta pertsonak garaiz hautemateko esku-hartze eraginkorrak indartzea, baita jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemak ere.

- Osasun Sailak adikzioen arloan ematen duen **laguntzen aginduan**, kolektiboen edo pertsonen **arrisku eta kalteberatasun maila** hartzen dira kontuan balorazio-irizpide gisa, eta arreta bereziz lantzen da adingabeen kasua.

Jarduketa-eremu horretan, 2021ean hirugarren sektoreko erakundeek esku-hartze eta detekzio goiztiarreko proiektuak garatu dituzte. Etorkintza fundazioak, adibidez, arrisku handieneko egoeran dauden nerabe eta gazteei, haien familiei eta irakasleei zuzendutako hezkuntza-arloko esku-hartze bat gauzatu du.

Hirugarren sektoreko erakundeek bezala, toki-erakundeek ere kasuak goiz detektatzeko eta gainbegiratzeko proiektuak garatu dituzte. Ugao-Miraballesko Udala aspalditik ari da zailtasun psikosozioemozionalak dituzten ikasleak goiz detektatzeko proiektu bat egiten, irakasleei jarraipena eta aholkularitza espezializatua emanaz. Beste adibide aipagarri bat Donostiako Udalaren detekzio goiztiarreko programa da. Esku-hartzea ikastetxean hasten du, hiru jarduketa-ardatzetan oinarrituta: alde batetik, profesionalen prestakuntza; bestetik, profesionaleri aholkularitza ematea kasuei heltzeko eta horien jarraipena egiteko; eta, azkenik, ukitutako familiekin esku hartzea zuzenean.

Gainera, jokabide-adikzioekin soilik lotutako detekzio goiztiarreko proiektuak ere egiten dira. Horrela, Adsis fundazioak proiektu bat gauzatzen du teknoadikzioen agerpena prebenitzeko, teknologiekiko mendekotasun-adierazleak dituzten nerabeengan goiz esku hartuz, arriskuak murrizteari begira. Gazteek tabletak eta mugikorrek erabiltzen dituzte ikasgelan, eta tresna digitalak garapen sozialaren iturri gisa erabiltzen ikasten dute. Erabilera osasungarria, sortzailea eta lankidetzakoa sustatzen da, teknologien erabilera orokortuaren aldean, hots, online aisialdiaren eta aisialdi digitalaren industria bultzatzen duenaren aldean.

1.2.8 Arrisku- eta kalteberatasun-egoera berezian dauden taldeei eta pertsoneri zuzendutako programak finkatzea eskolako, familiako, laneko eta aisia eta jaietako eremuetan.

- Osasun Sailaren adikzioen arloko laguntzen aginduaren bidez, hainbat erakundek gauzatutako prebentzio adieraziko proiektuak kofinantzatzen dira. Prebentzio mota hori adikzio-irizpide diagnostikoak betetzen ez baina alde zuzeneko zantzuak dituzten pertsoneri zuzenduta dago, hala nola substantzien abusuaren edo portaera-arazoaren sintomak.

Prebentzio adieraziko proiektuak eta artatutako pertsonak

	Hirugarren sektoreko erakundeen proiektu kopurua	Toki-erakundeen proiektu kopurua	Proiektuak guztira	Artatutako pertsonen kopurua	
2017	4	13	17	2.061	
2018	6	0	6	1.616	
2019	9	0	9	1.984	
				G	E
2020	11	1	12	2.757	
				G	E
2021	10	0	10	2.870	
				G	E
				1.657	1.213



Grafikoak erakusten duenez, 2021ean artatutako arrisku edo kalteberatasun handieneko pertsonen kopuruak goranzko joerari eutsi dio.

Hona hemen 2021ean dirulaguntza jaso duten proiektuen adibide batzuk:

- «Jarrera disruptiboak dituzten eta drogak kontsumitzen dituzten nerabe eta familia kalteberekina esku hartzea» (Deustu-San Inazio modulu psikosoziala).

- «Hazarri proiektua», osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa bultzatzeko, arrisku- edo kalteberatasun-egoera berezietan dauden pertsonen edo taldeen artean (Jeiki fundazioa).
- Haur, nerabe eta familia oso kalteberentzako aholkularitza eta orientazioa, «Hirusta programaren» barruan (Gizakia Fundazioa).
- «Kalteberatasun handieneko nerabeen familiekiko arreta eta esku-hartzea» (Etorkintza fundazioa).
- Kalteberatasun-egoeran dauden gazte migratzaileekiko prebentzioko «LANTZEN proiektua» (Erain).

1.2.9 Substantzia adiktiboen kontsumo problematikoak eta jokabide-adikzioak dituzten nerabeei eta gazteei bideratutako programak sustatzea, baita teknologia digitalen erabilera egokia jorratzen duten programak ere.

- 2021ean, aurreko urteko leerroari jarraituz, laguntzen aginduan 236.000 euro esleitu dira arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko hirugarren sektoreko erakundeen proiektuen finantzaketarako, baldin eta proiektu horien helburua «**EAEn ausazko jokoarekiko adikzioa eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuk prebenitzea eta tratatzea**» bada.
- Kalteberatasun-egoeran dauden gazteekin prebentzio selektibo eta adieraziaren lerroan, hainbat proiektu gauzatzen dira laguntzen aginduaren bidez. 2021ean honako hauek aipa ditzakegu:
 - Jokabide-adikzioen eremuan, psikoheziketako arreta emateko programa bat garatzen da, jokabide-adikzioen prebentzioan eta tratamenduan espezializazio tekniko handia duena (Erain).
 - Prebentzio selektiboa eta adierazia prestakuntza-zentroetan: esku-hartze psikosozialeko programa integrala drogekin loturiko arrisku latzak dituzten ikasleekin eta haien familiekin (Erain).

1.2.10 Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak martxan jartzea, baldin eta ekintza horiek droga eta ausazko zein online jokoek osasunean eta autonomia pertsonalean duten inpaktuaren arrisku-pertzepzioa eta ezagutza areagotzen laguntzen badute.

- 2021ean, Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen **laguntzen aginduaren** bidez, sentsibilizazio-ekintzak barne hartzen dituzten hainbat proiektu garatu dira. Hona hemen adibide batzuk:
 - «Drogen eta alkoholaren kontsumorako prebentzioa»: jai-eremuko prebentzio selektiboa (Kilometroak Kultur Erakundea).
 - «Gipuzkoan tabakismoa eta kalamua prebenitzeko eta murrizteko proiektua», herritarrak oro har kontzientziatzeko (Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte, Gipuzkoa).
 - «Erretiratu tabakotik» proiektua, biztanleek erretzeari utz diezaioten sustatzeko (Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte, Bizkaia).

- «Bizia ematen didan airea arnastu nahi du, ez kentzen didana» proiektua (Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte, Bizkaia).
- Jokabide-adikzioei dagokienez:
 - «Ausazko jokoen eta kirol-apustuen arriskuak prebenitzeko tailerrak», nerabeak eta 15-23 urte bitarteko gazteak arriskuei buruz informatzeko eta sentsibilizatzeko (Etorkintza fundazioa).
 - «Nerabeen joko patologikoaren prebentzio unibertsalerako proiektua», hezkuntza-izaerakoa, arrisku-faktoreak murrizteko eta babes-faktoreak sustatzeko. DBHko 4. mailako, batxilergoko 1. mailako eta erdi-mailako heziketa-zikloetako ikasleei zuzenduta dago (AGIPAD droga-abusua ikertzeko eta prebenitzeko Gipuzkoako elkarte).
 - «Kirol-apustuen arriskuei buruzko sentsibilizazio kanpaina», aisialdirako aukerekin, 24 urte arteko gazteentzat (Gasteizko Udala).
 - «Interneten eta teknologia berrien arriskuen prebentzioa». Lehen Hezkuntzako 3. eta 5. mailan eta DBHko 1. eta 3. mailetan lantzen da proiektua. Ikasleen konpetentziak indartu nahi ditu, honako hauek sustatzeko: portaera-trebetasunak, bizi-egoera kritikoei aurre egiteko gaitasuna, frustrazioei aurre egiteko gaitasuna eta norbanakoaren eta gizartearen erantzukizuna. Helburua da ikasleek ulertzea beren jarrerak ondorioak dakartzatela, baita beren jokabideetatik egiazko arriskuak etor daitezkeela ere (Santurtziko Udala).

1.3 helburua Substantzien kontsumoarekin eta adikzioak sortzeko arriskuak dituzten portaera neurrigabeekin erlazionatutako arriskuak arintzea.

Ekintzak:

1.3.11 Aisia-guneetan drogen (substantzien) kontsumoak sortutako arriskuak eta sexu-abusuak murriztuko dituen prebentzio-neurrien identifikazioan aurrera egitea.

Toki-erakundeek drogen kontsumoarekin lotutako arriskuak –kontsumo horiekin lotutako arrisku-jokabideak barne– modu integrarean murrizten dituzten prebentzio-proiektuak garatzen dituzte komunitate-eremuan. Testuinguru horretan, Mungialdeko Mankomunitatearen edo Arratiako Udalaren programa komunitarioa nabarmendu behar da. Izan ere, azken urteotan adikzioen prebentzioa lantzen ari dira hezkuntza afektibo-sexualetik eta drogen kontsumoarekin lotutako arriskuak murriztetik abiatuta. Sexu-transmisiozko gaixotasunak, sexu segurua eta halako alderdiak lantzen dituzte, batez ere gazteen artean.

1.3.12 Jai- eta aisia-eremuetara bideratutako prebentzio- edo arriskuen murrizketa-programak indartzea.

- **Testinga:** Prebentzioko esku-hartzeak aisia-eremuetan, pertsonak ingurune horietan egiten duten drogen kontsumo ludikoarekin lotutako arriskuak murrizteko helburuarekin, batez ere nerabeen eta gazteen artean. Izaera ibiltaria dute eta jai-eremuetan eta pertsona asko biltzen

diren lekuetan egiten dira. Kontsulten arreta, informazio-materialen banaketa eta laginen azterketa-zerbitzua azpimarratu behar dira.

Testing programan parte hartu duten pertsonen kopuruaren bilakaera

	Toki-erakundeen kopurua	Esku-hartzeen kopurua	Pertsona kopurua	
2017	39	47	17.387	
2018	39	62	18.046	
2019	37	63	16.265	
			G	E
			10.332	5.933
2020	2	3	440	
			G	E
			297	143
2021	3	4	181	
			G	E
			137	43

Taulan, programa honen barruan egindako esku-hartze guztiak azaltzen dira, bai Eusko Jaurlaritzak garatutakoak, bai toki-erakundeek garatutakoak.

- **Alkoholimetriak:** Alkohol-kontsumoarekin lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko zerbitzua, aisia-guneetan esku-hartzeak gauzatuz. Izaera ibiltaria dute eta jai-eremuetan eta pertsona asko biltzen diren lekuetan egiten dira. Hain zuzen ere, alkohol-kontsumoaren arriskuei buruzko informazioa ematen da; alkoholemia-test bat egiten da (informazio-izaera duena) eta prebentziorako oinarritzko materiala banatzen da (alkoholimetroak, erregeletak, liburuxkak eta preserbatiboak).

	Toki-erakundeen kopurua	Esku-hartzeen kopurua	Pertsona kopurua	
2017	52	73	15.137	
2018	48	71	16.371	
2019	55	77	16.996	
			G	E
			10.588	6.408
2020	2	4	149	
			G	E
			83	66
2021	30	43	3.865	
			G	E
			2.042	1.823

Taulan, programa honen barruan egindako esku-hartze guztiak azaltzen dira, bai Eusko Jaurlaritzak garatutakoak, bai toki-erakundeek garatutakoak.

- **Entretanimendu-erabilerako lonjak:** Arriskuen prebentziorako eta murrizketarako zerbitzua entretenimendu-erabilera duten lonjetan. Programa gazteak biltzen diren lonjetan bertan garatzen da, eta hainbat gai aztertzen dira taldean, drogen kontsumoak eragindako arriskueta sakontzeko asmoz. Gazteen parte-hartzearen bidez eta haien elkarguneetan bilduta, prebentzio-aholkua eta arriskuak murrizteko aholkua bere egin eta barneratu dezaten nahi da.

	Lonja kopurua	Gazte kopurua	
2017	29	536	
2018	53	842	
2019	35	589	
		G	E
		440	149
2020	0	0	
2021	0	0	

Taulan, programa honen barruan egindako esku-hartze guztiak azaltzen dira, bai Eusko Jaurlaritzak garatutakoak, bai toki-erakundeek garatutakoak.

2021ean, COVID-19aren pandemiaren eraginarekin, entretenimendu-erabilera lonjetan pertsonak biltzea debekatu zen Osasuneko sailburuaren dekretu bidez, eta horrek ezinezko egin zuen prebentzio-programa hori egitea.

- Laguntzen aginduaren bitartez, Osasun Sailak programen finantzaketan laguntzen du udalerriek eta hirugarren sektoreko erakundeek gauzatzen dituzten eremu horietan.

Jai- eta aisialdi-eremuko proiektuak, laguntzen aginduaren bidez garatuak

	Toki-erakundeak	Hirugarren sektorea	Guztira
2018	15	5	20
2019	18	4	22
2020	8	3	11
2021	10	3	13

1.3.13 Adikzioa sortzen duten substantzien kontsumoaren arriskuaz gehiago jabetzera zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak garatzea, kalamuaren kasua azpimarratuz, haren kontsumoaren gaineko arrisku-pertzepzio txikia dela eta.

- **Bizi tabakorik gabe** sentsibilizazio-kanpaina. Pandemiaren ondorioz, 2020tik ez da materialik banatu osasun-zentroetan, baina Eusko Jaurlaritzaren adikzioen webgunean dago eskuragarri.
- **Kerik Gabeko Hondartzak** ekimena, tabakoaren kontsumoa desnormalizatzeko eta zigarrokinek ingurumenean eragiten duten kaltea saihesteko. Jarduketa hau 1.1.5 ekintzan dago jasota.

1.3.14 Farmako psikotropikoen erabilera neurrigabea (gehienbat emakumeetan) prebenitzeko programak eta jarduketak diseinatzea.

- Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) OPIK ikerketa-taldearen artikulu bat argitaratzea. Bertan, datu originalak eta beste azterlan batzuen ebidentzia oinarri hartuta, osasun mentaleko genero-desberdintasunak eta horien baldintzatzaile nagusiak deskribatzen dira, eta arreta berezia jartzen da medikalizazioan egon daitezkeen genero-desberdintasunetan. Artikuluaren emaitzen arabera, antsietate- eta depresio-sintoma berdinekin, emakumeek probabilitate handiagoa dute diagnostikatuak izateko eta psikofarmakoak kontsumitzeko. Depresiorako psikofarmakoen preskripzio (antsiolitikoak eta antidepresiboak) kopurua bi aldiz handiagoa emakumeen artean, eta azken urteetan goranzko joera izan du. Horrez gain, osasun mentaleko arazoak dituzten gizonengan tratamendu farmakologiko eskasa eta infradiagnostikoa detektatu da.

<https://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S0213911120301813?via%3Dihub>

1.3.15 Prebentzio-programak eta -jarduketak diseinatzea, arriskuaren pertzepzioa areagotzeko eta jokoaren eta teknologia digitalen eta horien aplikazio berrien erabilera desegokiari lotutako arriskuak murrizteko, bai eta adikzioak sor ditzaketen gehiegizko jokabideei lotutakoak ere.

- Osasun Sailak **Jokoaren Euskal Behatokia** parte hartzea. Organo hori zeharkakoa eta kide aniztuna da, eta EAEn jokoaren etengabe aztertzea du helburu. 2021ean, Adikzioen Zerbitzuak Jokoaren Euskal Behatokiaren 2 bileratan parte hartu du (2021eko maiatzaren 25ean eta azaroaren 15ean). Bilera horietan, jokoari buruz egindako ikerketen txostenak eta lan-plana aurkeztu dira.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak alegazioak aurkeztu ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoaren Erregelamendu Orokorra onartzeko uztailaren 27ko 120/2016 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektuari dagokionez.
- Adikzioen Zerbitzuko pertsona bat lehenengo presidenteorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2021eko uztailaren 29ko AGINDUAREN Balorazio Batzordeko kide da. Agindu horren bidez, 2021eko ekitaldian EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak arautzen eta iragartzen dira. 2021ean hainbat bilera egin dira aurkeztutako proiektuen kalifikazioak adosteko eta bi zuzendaritzen lana koordinatzeko, gainfinantzaketa saihesteko asmoz.

1.4 helburua Gehien kontsumitzen diren eta gizarte-onarpen handiena duten substantziak desnormalizatzeko jarduketak sendotzea.

Ekintzak:

1.4.16 «Tabako-kerik gabeko Euskadi» estrategia indartzea.

- **Kerik Gabeko Hondartzak** ekimena, aisialdiko gune horiek osasunarekin eta ongizatearekin bateragarri egiteko, eta, hala, horietaz gozatzeko. Jarduketa hau 1.1.5 ekintzan dago jasota.
- 1.1.3 ekintzan aipatutako **Kerik Gabeko Gazteak (KGG)** programa 2011n jarri zen abian, eta EAEn 70.000 ikasle inguruk hartu dute parte. 2017-2018 ikasturtera arte DBHko 1. eta 2. mailari zuzentzen zitzairen, baina 2018-2019 ikasturteretik aurrera Lehen Hezkuntzako 6. mailari ere eskaintzen zaio. Ikasturte bakoitzaren hasieran material berriak gehitzen dira eta lantzeko gai berri bat proposatzen da eskola-lehiaketarako.

Parte hartu duten ikasleak urteko

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
2017-2018	1.946	2.787	2.549	7.282
2018-2019	1.572	2.875	2.139	6.586
2019-2020	1.151	3.045	1.167	5.863
2020-2021	608	1.573	1.331	3.512

KGG programan parte hartu duten ikastetxeen kopurua, 2011-2019

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
2017-2018	21	31	27	79
2018-2019	12	34	30	76
2019-2020	10	37	24	71
2020-2021	4	16	19	39

1.4.17 Adingabeak eta Alkohola programa garatzea.

Adingabeak eta Alkohola programak 35 ekintza biltzen ditu, eta horiekin lotutako beste 30 jarduketa. Batez ere komunitate-, hezkuntza-, osasungintza-, araudi- eta prestakuntza- eta sentsibilizazio-eremuan garatzen dira. Adingabeak eta Alkohola programaren indarra da erakunde publiko eta pribatuek garatzen dituzten ekimen multzo bat bildu, sustatu eta koordinatu izana, adingabeak edari alkoholduen kontsumoaren ondoriozko arriskuetatik babesteko. Eta horren emaitzak Adikzioen Planaren ebaluazio honen ekintza eta adierazleetan jasota daude.



https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_menores_alcohol/eu_def/adjuntos/EgitarauaAdingabeakAlkohola.pdf

1.4.18 Zigarro elektronikoaren eta nikotina aska dezaketen gailuen erabileran sentsibilizatzeari buruzko programa berezi bat garatzea.

- **Kerik Gabeko Gazteak** programan, nikotina aska dezaketen gailuen erabilera sartzan da jardueren barruan, prebentzio- eta sentsibilizazio-eduki gisa. Gainera, 2021ean kalamuaren mitoei buruzko unitate didaktiko berri bat gehitu da.
- **Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeak** guztiz parekatzen ditu tabakoaren eta nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea, kontsumoa, salmenta eta hornidura.

2. ARDATZA: Eskaintza murriztea

HELBURU NAGUSIA: Substantziek eta jarduera adikzio-eragileek irispide mugatuagoa izatea; kontsumoak gizartean duen onarpena murriztea; eta indarrean den araudia eraginkortasunez bete dadin bultzatzea; horiexek helburu orokorrak.

2.1 helburua Tabakoaren, alkoholaren eta adikzioa eragin dezaketen beste legezko substantzia batzuen sustapenarekin, publizitatearekin, salmentarekin, hornidurarekin eta kontsumoarekin erlasionatutako jarduerak kontrolatzea.

Ekintzak:

2.1.1 Adikzioei buruzko arautegian eskaintzaren eta kontsumoaren murrizketarekin erlasionatuta dauden esku-hartzeak indartzea, inplikaturako eragileen arteko koordinazio hobearen bitartez.

- Kriminologiaren Euskal Institutuak (KREI) 2020an egindako txostena erreferentziatuz hartuta, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea ez betetzeagatiko zehapenak ordeztzeko dekretu-proiektua egin du 2021ean, eta 2022an onartuko da.

2.1.2 Eskaintza murriztu eta kontrolatzeko programak garatzea, ostalaritzara zein bestelako guneetara, ekitaldi eta kontsumo- zein salmenta-puntuetara zuzenduak, sustapenean eta salmentan autokontrola eta ardura indartuz, genero-ikuspuntutik, kontuan hartuta adikzioak dituzten emakumezko nerabeak gero eta gehiago direla.

- Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin lotutako **arriskuak murrizteko prestakuntza-zerbitzua** garatzea, gazteekin eta adingabeekin harremanetan lan egiten duten profesionalentzat. Batez ere ostalaritzaren eta hezkuntza ez-formalaren eremuan gauzatzen da. Jarduketa hau ere 1.1.3 ekintzan dago jasota.

2.1.3 Tabako, zigarro elektronikoko eta alkoholaren arloan ikuskatze- eta zehapen-eskumenaz baliatzean dauden prozeduren protokoloa egitea.

- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea ez betetzeagatiko **zehapenak ordeztzeko dekretu-proiektua**. 2022an onartuko da, 2.1.1 ekintzan aipatu bezala.

2.1.4 Sendagai psikotropikoen legez kanpoko banaketa eta merkataritzari buruzko egungo kontrol- eta erregistro-sistema mantentzea eta, hala badagokio, hobetzea.

Apirilaren 7ko 1/2016 Legeak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak, Osasun Administrazioak sendagai psikotropikoen erabilera prebenitzeko eta horiek egoki erabiltzeko neurriak jasotzen ditu.

2.1.5 Zehapenen ordezo neurriak indartzea –legezko eta legez kanpoko substantzien kasuan–, norberaren ekintzen gaineko erantzukizuna indartzeko.

- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea ez betetzeagatiko zehapenak ordezteko dekretu-proiektuan arautzen da gai hori. 2021ean egin zen eta 2022an jarriko da indarrean. Dekretu-proiektuaren helburua da zehapenak ordezteko araubidea arautzea, alegia, apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 93. artikuluan aurreikusitakoa, eta, horretarako, ordezo neurriak eta horiek aplikatzeko prozedura ezartzea.

Bilbo, Gasteiz, Donostia, Portugalete edo Barakaldoko udalek, zehapenen ordezo, adingabeei zuzendutako neurrien bidez, edari alkoholadunen eta kalamuaren kontsumoaren prebentzioa sustatzen duten programak garatzen dituzte.

2.1.5 bis Administrazio publikoen, toki-erakundeen eta ekitaldien sustatzaile eta antolatzaileen aldetik, alkoholik eta drogarik gabeko aisialdi- eta jai-eredu bat sustatzea.

- Puntu honetan, 1.3.12 ekintzan aipatutako **jai-eremuko jarduketak** azpimarratu behar dira.
- Aurreko urteetan bezala, 2021ean Osasun Sailaren laguntzen bitartez zenbait **programak eta proiektuak** jaso dituzte dirulaguntzak, **aisialdi-eredu alternatibo bat sustatzeko helburuarekin**. Hainbat adibide aipatzen dira:

- Kilometroak Kultur Elkarteak: «Drogen eta alkoholaren kontsumorako prebentzioa». Pandemiaren ondorioz, ez da jai-eremuan egingo. Beasain-Ordizian eta Lazkaon hainbat ekintza antolatu dira. Gainera, aurreko urtean bezala, tailerrak egin dituzte ikastola guztietan, sentsibilizazio-kanpaina gisa, pandemia-egoeran aisialdia kudeatzeko proposamenekin. Informazioa zabaldu dute blog honen bidez: <https://kmk20prebentzioa.a.blogspot.com>
- Aretxabaletako Udala: «UDA proiektuan parte hartzea». Kirolaren eta komunitatearen parte-hartzearen bidez osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko sareak ezartzen dituen programa.
- Eskoriatzako Udala: «Herriko taldeek antolatutako jardueretan parte hartzea». Koordinazio-proiektua, herritarren parte-hartzearen bidez aisialdi alternatiboa sustatuko duten lantaldeak bultzatzeko.
- Santurtziko Udala: «Drogen kontsumoa eta indarkeria prebenitzeko JOLASTU BIZI programa». Drogen eta krimenaren aurkako Nazio Batuen Bulegoak (UNODC) garatzen duen izen bereko programatik abiatuta ezarri da. Programa horren helburua da bizitzeko trebetasunak eskuratzea kirolaren bidez.
- Arrigorriaga, Eibar edo Irungo Udalek antzeko proiektuak egiten dituzte, aisialdi alternatibo eta osasungarria sustatzeari begira, gazteei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeen bidez.

2.2 helburua Droga ilegaleko merkatua kontrolatzea eta haien eskaintza eta presentzia gutxitzea.

Ekintzak:

2.2.6 Legez kanpoko drogen eta talde delitugileen eta eskala txikiko eta handiko banaketaren aurreko esku-hartzeak indartzea, Ertzaintzaren eta tokiko polizia-indarren arteko lankidetzaren handiagoa sustatuz.

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legeak zenbait jarduketaren irizpide ezartzen ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoek irizpide horiek kontuan hartu behar dituzte drogen lege kontrako trafikoaren jazarpenean.

2.2.7 Zaintza eta alerta goiztiarreko sistema bultzatzea.

- 2017-2018an, **Euskadiko Zaintza eta Alertako Sistema** finkatu zen. Sistema horren helburua da droga agertu berriak eta arriskutsuak eta kontsumo-eredu berriak detektatzea da.

Osasunerako arriskutsuak diren substantziak zaintzeko eta ondoren alertan jartzeko, Osasun Sailak Ai Laket elkartearen eta Gizakia fundazioaren parte-hartzea du, haien jasotzen baitituzte laginak, bai EHUKo Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren (SGIKER) erresonantzia magnetiko nuklearreko laborategiaren laguntza ere, zeinak bidaltzen diren substantziak aztertzen baititu, berriak edo arriskutsuak diren bila.

Zaintza eta alerta goiztiarreko programaren barruan, 300 lagin inguru aztertzen dira urtero: 2017an, 335 lagin; 2018an, 296; 2019an, 320; 2020an, 150; eta 2021ean, 240.

- Laginak aztertuta eta emaitzak jasota, Eusko Jaurlaritzak Alerta Goiztiarreko Espainiako Zerbitzuari (SEAT) jakinarazten dio substantzia berriak edo arriskutsuak detektatu direla; zehazki, Drogen Plan Nazionalerako Informazio eta Dokumentazio Sistemaren Unitatearekin harremanetan jartzen da, eta unitateak Drogen Europako Behatokiari bidaltzen dio informazio hori.

Hona hemen SEATi bidalitako alerten zerrenda:

- Bi alerta 2017an, uztailean eta azaroan.
 - Bi alerta 2018an, maiatzean eta urrian.
 - Bost alerta 2019an, uztailean, irailean, urrian eta azaroan.
 - Hiru alerta 2020an, abuztuan, ezohiko substantziak izateagatik.
 - Alertarik ez 2021ean.
- GABIA Adikzioen Behatokiaren webgunean, webgune zehatz bat dago Euskadiko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuarentzat. Hona hemen esteka:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/alerta-sistema-gabia/web01-a3gabia/eu/>

2.3 helburua Jokoarekin eta teknologia digitalekin erlazionatutako jardueren eskaintza kontrolatzea, eta eskaintza horretan moderazio- eta erantzukizun-balioak sartzea.

Ekintzak:

2.3.8 Sektorearen autokontrolera eta erantzukizunera zuzendutako neurriak bultzatzea, jokoaren eta teknologia digitalen publizitatean eta eskaintzan.

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak Segurtasun Saileko **Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzarekin elkarlanean** dihardu eta gai horiek jorratzen diren foro guztietan parte hartzen du:
 - **Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularian**; 2021eko ekainaren 17an bildu ziren.
 - **Jokoaren Euskal Kontseiluan**; 2021eko ekainaren 17an bildu ziren.
- 1.3.15 ekintzan aipatutako **Jokoaren Euskal Behatokian parte hartzea.**
- Konpromisoa hartzea Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoaren Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektuarekin, zeinari alegazioak aurkezten baitzaizkio.
- Lehenengo presidenteorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2021eko uztailaren 29ko AGINDUAREN balorazio-batzordean parte hartzea. Agindu horren bidez, 2021eko ekitaldian EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak arautzen eta iragartzen dira.

3. ARDATZA: Asistentzia sanitarioa eta soziosanitarioa, eta gizarteratzea

HELBURU NAGUSIA: EAEko sare sanitarioa eta gizarte-zerbitzuak erabiliz, adikzioen eta jokabide eta kontsumo arazotsuen arriskuak eta kalteak ahalik eta txikienak izatea eta erantzun jarraitua, koordinatua eta genero-ikuspegia duena ematea adikzioek dakartzaten laguntza-premiei.

3.1 helburua Arreta soziosanitarioa eskura jartzea, adikzioak dituzten edo izan ditzaketenen behar indibidualetan zentratua, bakoitzaren berezitasunak errespetatuta eta ekitate sozioekonomikoaren eta genero-ekitatearen ikuspuntutik.

Ekintzak:

3.1.1 Detekzio goiztiarreko sistemak sustatzea, arreta komunitarioko baliabideei eta lehen mailako arretako zentroei arreta berezia eskainiz, horiek baitira herritarrekin harremanetan jartzeko puntuak, betiere profesionalen prestakuntza indartzeko helburuarekin.

- **Elkarteek eta udal-talde teknikoek egindako adikzioen prebentzio komunitariorako programak mantentzea eta sustatzea**, Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzen aginduaren bitartez.

2020an diruz lagundutako proiektuen adibideak:

- Margotu: «Nerabezaro kalteberan osasuna sustatzea eta adikzioak prebenitzea mindfulness tekniken bidez», Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleentzat. Hainbat eduki jorratzen ditu, hala nola garapen emozionala, gatazkak konpontzea, taldearen presioa, kontsumo arduratsua, osasunaren sustapena indartzeko eta mendekotasun-jokabideei lotutako arrisku-faktoreak prebenitzeko.
- Agipad: «Prebentzio-proiektu selektibo komunitarioak Gipuzkoako udalerrietan». Izaera psikohezitzailea du, eta taldeka edo banaka egiten da, arazoak dituzten familiekin; familia-funtzionamenduaren eredu desegokiak aldatu nahi ditu, eta babes-faktoreak bultzatu, kontsumitzen hasteko adina atzeratzeko, adingabeen arteko kontsumoa murrizteko eta erabilera problematikoak saihesteko, bai eta mendekotasuna eragiten duten beste jokabide batzuk saihesteko ere.
- Donostiako Udala: «Prestakuntza- eta sentsibilizazio-proiektua, adingabeen arrisku- eta babesgabetasun-egoerak prebenitzeko, antzemateko eta goiz esku hartzeko». Ikasleei, irakasleei, gurasoei eta udalerriko beste gizarte-eragile batzuei zuzenduta dago. Proiektuaren bidez, profesionalak prestatu eta aholkuak ematen zaizkie, eta familiekin esku-hartze zuzena egiten da.
- Ugao-Miraballesko Udala: «Osasunaren sustapena eta arrisku-egoeren detekzio goiztiarra hezkuntzaren eremuan». Zailtasun psikosozioemozionalak dituzten ikasleak goiz detektatzean datza, irakasleei laguntza eta aholkularitza espezializatua emanaz eta kasuak gainbegiraturaz. Kasuak berrikustearen bidez, hezitzaileei (aholkulariari, irakasleei, begiraleei) espazio bat eskaintzen zaie ikasle jakin baten edo gela/talde baten egoera

eztabaidatu eta aztertu ahal izateko, kezka sortzen badu eta esku-hartze espezifikoagoa behar badu.

- Eguneroko jardunean gazteekin elkarreragiten duten profesionalen prestakuntza-proiektuak ere aipa daitezke. Adibidez, Ermuko eta Eibarko Udalek garatutako proiektuak, udalerriko gizarte-eragileei edo udaltzainei zuzendutako, drogen kontsumoarekin lotutako arrisku-jokabideak goiz detektatzeko baliabideak eskura ditzaten eta nola jokatu jakin dezaten.

3.1.2 Talde espezifikoetara eta kalteberatasun-egoerara daudenei eskaini beharreko arretan hobetzeko alderdiak identifikatzea: talde horien behar bereziak aztertzea, hautemate eta tratamendu baliabideak hobetzea eta gizarte-zerbitzuen, lehen mailako arretako zerbitzuen eta osasun metaleko zerbitzuen arteko koordinazioa indartzea. Zehazki, berariaz hauek artatuko dira:

- **Patologia duala eta patologia anitzak dituzten pertsonak.**
- **Emakumeak, familiako erantzukizunak bereganatu behar izanaren eta gizartean estigmatizazio handiagoa izatearen ondorioz, tratamenduan hasteko gizona bakoitzaren bakoitzaren zailtasun gehiago eta eboluzio okerragoa dutelako.**
- **Adikzio-arazoak edo horiek izateko arriskuak dituzten adingabeak.**
- **Adikzio-arazoak edo horiek izateko arriskuak dituzten 65 urtetik gorako pertsonak.**

• **Kolektibo horietara bideratutako esku-hartzeak sustatzen dituzten proiektuak** mantentzea eta sustatzea; elkarteek eta toki-erakundeek gauzatzen dituzte, eta Osasun Sailaren finantzaketa jasotzen dute, laguntzen aginduaren bitartez. Adibide gisa, 2021ean honako hauek aipa ditzakegu:

- Hiesaren aurkako T4 elkarteak: «Abantari proiektua», gizarteratze-fasean dauden pertsonen beharrei erantzuteko. Substantzia-abusuko historia duten pertsonen zuzendutako: gizarteratze-prozesuan daudenak eta sare sanitarioan sartzeko zailtasunak dituztenak, dela motibazio-faltagatik, dela ezagutza-faltagatik, edo osagarriren bat edo gainbegirada sozial zein sanitarioa behar dutenak.
- Gizakia fundazioa: «Mendekotasunak dituzten pertsonentzako Arreta Integraleko Zentroaren (CAIPA) proiektuak» diziplina anitzeko laguntza eskaintzen die mendekotasuna duten pertsonen, eta tratamendu-, laguntza- eta gizarteratze-premiei erantzuten die. Modu pertsonalizatuan heltzen zaio kontsumoari; horretarako, desohitze-prozesu bati hasiera ematen zaio edo kontsumoak eragindako arazoei, arriskuei eta kalteei heltzen zaie, kontsumitzen gelditu nahi ez badute.
- Jeiki fundazioa: Tratamendu ambulatorko «Aukera proiektua»; substantzia toxikoen mendekotasuna duten pertsonengan hura murrizteko xedea du, bai eta substantzia toxikoen erabilerekin eta/edo horiekin lotutako egoera problematikoek sortzen dituzten arazoak pixkanaka gutxitzea ere, osasuna hobetzea eta kalteak eta arriskuak murriztea sustatuz.
- Toki-erakundeetako prebentzio-talde guztiek arreta pertsonalizatua eta zuzena ematen diete beren udalerrietan detektatzen dituzten kasuei, eta, gainera, kaltetutako pertsonen

eta haien familiei laguntzeko proiektuak jartzen dituzte abian. Horren harira, aipatzekoak dira honako proiektu hauek:

- Ermuko Udaletxea: «Arreta eta laguntza pertsonalizatuko proiektua».
- Lea Artibaiko Mankomunitatea: «Prebentzio egokitua, arreta zuzena zerbitzua».
- Santurtziko Udala: «Familia aholkularitzarako zerbitzua».
- Bilboko Udala: «Mendekotasunak dituzten pertsonen eta haien familiei laguntzeko proiektua».
- Beste udal batzuek, hala nola Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasatekoek, kalteberatasun-egoera handian dauden pertsonen tratamenduari ekiteko laguntzak ezartzen dituzte.

3.1.3 Dauden desintoxikazio- eta desohitze-programak finkatzea.

- **Tabakoaren mendekotasuna tratatzeko** programa, Osakidetza. 2011n abian jarri zenetik, gutxi gorabehera 22.500 pertsonak jaso dute tabakoa erretzeari uzteko tratamendua, banakako eta taldeko esku-hartzeen bidez.

Lehen mailako arretan tabako-mendekotasunarentzako tratamendua jaso duten pertsona kopurua

	Taldeko terapia Guztira			Banakako terapia Guztira		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2017	543	372	915	1.076	989	2.065
2018	306	218	524	944	915	1.859
2019	427	253	680	1.040	1.019	2.059
2020	324	282	606	3.837	3.983	7.820
2021	190	98	288	2279	2362	4641

Iturria: Osakidetza

- **Tabakismoaren tratamendu farmakologikoa.** 2020an, tabakoa erretzetik desohitzeko sendagai lagungarriak finantzatzea onetsi zen. Bareniklina eta bupropion farmakoak erabiltzen dira gehien. Sendagai horien finantzaketaren onuradun izateko, beharrezkoa da 18 urtetik gorakoa izatea, tabakismoa tratatzeko laguntza-programa baten barruan egotea (banakakoa edo taldekoa) eta erreferentziako profesional sanitarioak agindu izana. Urteko saiakera bat finantzatzen da, eta, beste sendagai batzuekin gertatzen den bezala, pertsona bakoitzari dagokion zenbatekoa ordaintzen zaio.

2021ean, hornidura-arazoak egon ziren; izan ere, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) jakinarazi zuenez, bareniziklina erabiltzen duen sendagaia merkaturatzeko baimenaren titularrak unitate berriak banatzeari utzi zion, N-nitrosobareniklina ezpurutasunaren presentzia ikertzen ari direlako sendagai horretan.

Tabakoa erretzeari uzteko sendagai lagungarriak finantzatzea

	Sendagaien kostua	Preskribatu zaien pertsonak
2020	1.980.000	11.001
2021	917.972	9.212

3.1.4 Osakidetzarekin lankidetzan aritzea alkoholaren kontsumoa prebenitu, era goiztiarren detektatu, diagnostikatu eta tratatzeko esku-hartzeen koordinazioan.

- **Adingabeak eta Alkohola programan** (1.4.17 ekintzan aipatzen da), helburu hori lortzeko zenbait jarduketa jasotzen dira.
- Adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitzeko, diagnostikatzeko eta tratatzeko esku-hartze programa bat du Osakidetzak.



https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/eu_def/adjuntos/programa_menores_y_alcohol_2018_eu.pdf

3.1.5 Kalamuaren kontsumoarekin lotutako arazoak dituzten pertsonen zuzendutako detekzio-, laguntza- eta tratamendu-ekimenak garatzea.

- Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzen aginduaren bidez, kolektibo horiei zuzendutako eta honako erakunde hauek garatutako **esku-hartzeak** mantentzea eta bultzatzea:
 - Minbiziaren aurkako Gipuzkoako elkarteak: «Gipuzkoan tabakismoa eta kalamua murrizteko eta prebenitzeko programa». Gazteentzako tailerrak ikastetxeetan, tabakoa eta kalamua erretzetik desohitzeko.
 - Oriepsi Orain: «Prevenia proiektua», Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxeetan alkohola eta kalamua kontsumitzeak dakartzan arriskuak eta kalteak prebenitu eta gutxitzeko.

3.1.6 Joko patologikoko arazoak, teknologia digitalen adikzio-erabilera eta adikzioa sor dezaketen beste jokabide batzuk dituzten pertsonen zuzendutako arreta integralerako eta tratamendu- eta lantze-ekimenak zerbitzu publikoetatik indartzea.

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eta **Osakidetzako Osasun Mentaleko Sareak** ohiko bilera eta harremanetan heltzen diote gai horri.
- Laguntzen aginduaren bidez, **substantziarik gabeko adikzioak dituzten pertsonak tratatzeko esku-hartzeen** proiektu espezifikoak gauzatu dira:

- Joko patologikoa duten pertsonentzako laguntza eta tratamendua: esku-hartze zuzena, izaera psikologikoa eta psikosoziala, jokabide-adikzioak dituzten pertsonekin, batez ere joko patologikoa (Deustu-San Inazio modulu psikosoziala).
- Joko patologikoak eta substantziarik gabeko adikzioek eragindako pertsonen eta haien familiei laguntza integrala ematea: ludopatia eta substantziarik gabeko beste mendekotasun batzuk dituzten pertsonak errehabilitatzera eta gizarteratzera bideratzen da. Horretarako, zerbitzu terapeutiko pertsonalizatua eta talde-laguntzako eskaintzen zaie (Ekintza-Aluviz Elkarte).
- Jokabide-adikzioak dituzten emakumeentzako arreta. Eraginpeko emakumeen laguntza-taldea: gune bat eskaintzen zaie ausazko jokoekiko eta apustuekiko adikzioa eta beste jokabide-adikzio batzuk dituzten emakumeei, bizitako esperientzia adierazi eta parteka dezaten, eta, aldi berean, hori lagungarri izan dadin (ASAJER).
- Jokabide-adikzioak dituzten pertsonen tratamendua: jokabide-adikzioak dituzten pertsonen arreta psikologikoa. Eragindako pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea du helburu, eta jokabide konpultsiborik gabe bizitzeko beharrezkoak diren aldaketak egitea du ardatz (ASAJER).
- Biderako gizarteratze-programa: ausazko jokoetan eta apustuetan gehiegikeriaz aritzen diren eta horien mende dauden pertsonen dituzten behar sozialei erantzutea du helburu (ASAJER).
- Jokaera: Teknologia berrien erabileraren eta ausazko apustu-jokoen inguruan jokabide problematikoak dituzten pertsonen arreta emateko eta laguntzeko programa (Gizakia fundazioa).
- Jokabide-adikzioak dituzten pertsonentzako eta haien familientzako esku-hartze eta tratamendu proiektua (Jeiki fundazioa).
- Adikzio psikologikoen errehabilitazioa, horien prebentzioa, gizarteratzea eta laguntza psikosoziala: banakako terapia kognitibo-konduktualaren bidez eta talde-formatuko autolaguntzaren bidez (Ekintza-Bibe Elkarte).

3.1.6 bis Nazioarteko komunitatearen berme zientifiko eta sanitarioan funtsatzea drogak xede terapeutikoekin edo kalteak gutxitzeko programetan erabiltzea.

2021ean, lantalde bat eratu da osasun mentaleko profesionalekin, eta, besteak beste, pertsonal ez-sanitarioek naloxona erabiltzea aztertu da, opioideek eragindako heriotza saihestu baitezake sendagai horrek. Europako herrialdeetan eta Kanadan erreferentziako programak daude, eta horiek kasua aztertzeko balio dute.

3.2 helburua Kalteberatasun handiko pertsoneri edo baztertze sozialeko egoeretan daudeneri tratamendurako, laguntzarako eta baliabideetarako bidea bermatzea.

Ekintzak:

3.2.7 Baztertze-egoera handian dagoen eta hondatze fisiko, psikiko eta sozial handia duen pertsonari arreta integrala ematea sustatzen duten jarduketak, baliabideak eta esku-hartzeak sendotzea eta ekintzak garatzea. Hala, arreta horren baitan arriskuak zein kalteak murriztea, pertsona horren oinarritzako beharretarako laguntza eta estaldura sartuko dira, neurri penalak dituzten drogazaleak ere barnean hartuko dira eta kontuan hartuko da egoera horretan dauden emakumeekiko gutxiespen eta bazterketa sozial handiagoa.

- Zenbait erakundek finantzaturako **baliabide soziosanitarioak eta kalteak murrizteko baliabideak** mantendu dira: Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala.

Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa (€-tan)

Entitatea	Baliabidea	2017	2018	2019	2020	2021
Hiesaren aurkako Bizkaiko Herri Batzordea	Arreta-premia txiki eta larrialdi soziosanitario arinetarako eguneko baliabidea, baztertze sozialeko egoeran dauden droga-mendekoentzat	76.000	76.000	76.000	76.000	76.000
Gizakia fundazioa	Adikzioak artatzeko Bilboko zentro soziosanitarioa «Andén 1»	166.101	166.101	166.101	166.101	166.101
Bilboko Elizbarrutiko Cáritas	«HONTZA» larrialdiko eta harrerako gaueko zentroa	146.130	146.130	146.130	146.130	146.130

- **Kolektibo horiei bideratutako esku-hartzeak sustatzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeen programak** mantentzea eta sustatzea, laguntzen aginduaren bitartez.
 - Askatasunaz gabetutako droga-mendekoekin eta espetxean jarraipen pertsonalizatua egiteko taldeekin programaturako irteerak, substantzien abusu, kontsumo problematiko eta joko patologikoko jokaerak dituzten espetxeratuekin. Alde batetik, hezkuntza-aisialdia eta aisialdi terapeutikoa sustatzen dira, osasuna babesteko eta sustatzeko eredutik eta pertsonarengan oinarritutako arreta-eredutik. Bestetik, parte-hartzaileek aldaketa- eta gaikuntza-prozesuak has ditzaten nahi da, jokabide-eredu osasungarriak eta baliabide pertsonalak bereganatuz, substantzien abusua murrizteko eta kontsumoaren kalteak gutxitzeko (Bide Sari Elkartea).
 - Drogak erabiltzen dituzten ijito zigortuen birgizarteratzeko eta errehabilitatzeko programa: birgizarteratzeko aukera ematen zaie droga-mendekotasuna duten herritar zigortuei, zigorra bete eta gizarteratu bitartean; horrela, prestakuntza-/hezkuntza-baliabideak eta baliabide terapeutikoak eskaintzen zaizkie pautu psikosozial egokituak beregana ditzaten (Gao Lacho Drom ijitoen elkarte).

Jokabide-adikzioei dagokienez, ASAJER elkartearen proiektua aipa daiteke:

- Jokabide-adikzioak dituzten emakumeentzako arreta. 3.1.6 ekintzan aipatutako eraginpeko emakumeen laguntza-taldea.
- Pandemia-egoera berriari aurre egiteko 2020an abian jarritako baliabide eta programekin jarraitzen da. Baliabide bereziekin jarraitu da:
 - Osasun mentalaren arretarako telefono-linea bat.
 - Formatu digitalera egokitutako eskola-prebentzioko programak.
- Erdu proiektua. Ekimen horrek 2021ean jarraituko du, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bultzadarekin. Bi laguntza-baliabide ditu:
 - Arretarako unitate mugikor espezializatuak hiru lurralde historikoetan. Hala behar diren baliabideak lekualdatuko dira adikzioei arreta eskaintzeko; bertan egiten ari den lanaren osagarri izango dira, eta osasuneko eta gizarte-babeseke sistemekin koordinatuko da.
 - Adikzioen arreta telematikoa. Honako pertsona hauei zuzenduko zaie: konfinamendu-egoerak berak kontsumoa handitzeko arriskua dakarkien pertsonen; orain arte tratamendu-baliabideetara hurbildu ez diren baina pandemian beren egoeraz jabetu diren eta harremanetarako baliabideak edo moduak ezagutzen ez dituzten pertsonen; eta adikzioen esparruan lan egiten duten baliabide sozial eta soziosanitarioetako profesionalei.

3.2.8 Lehendik ere bazeuden baliabide eta programetara sartzeko irizpideak berrikustea, adikzioekin lotutako arazoekiko sentikortasun handiagoa sustatze aldera.

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legeak irizpide batzuk ezartzen ditu, eta osasun-zerbitzuek irizpide horietara egokitu behar dute beren zerbitzuak ematean.

3.3 helburua Urgentziazko protokoloetan koordinazio soziosanitarioa indartzea eta maila guztietako arreta sendotzea.

Ekintzak:

3.3.9 Eusko Jaurlaritzaren eta eskumenak dituzten gainerako erakundeen aldetik, osasun- eta gizarte-sektoreen arteko koordinazio-mekanismoak aztertzea eta, hala badagokio, garatzea, ezartzea eta hobetzen jarraitzea, hala, adikzioak eta jarrera eta kontsumo problematikoak dituzten pertsonen arreta integrala eta eraginkorra bermatzeko, betiere arretarako ibilbideak eta protokoloak modu adostuan zehaztuz.

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza maiz biltzen da EAEko arreta soziosanitarioko arduradunarekin.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak bilerak egiten ditu Osakidetzako Tabako eta Alkoholaren arloko arduradunekin, bai eta Osasun Mentaleko Sarekoekin ere.
- Bilerak egin eta harremanak izaten dira Osakidetzako Osasun Mentaleko Sarearekin, substantziarik gabeko adikzioetan esku hartzeko, bai eta dauden baliabideei, laguntza-ibilbideei eta adikzioei aurre egitearekin lotutako beste gai batzuei heltzeko ere.

- Bilerak egin eta harremanak izaten dira hirugarren sektoreko hainbat erakunderekin, bai eremu sanitariokoekin eta adikzioetakoekin, bai eremu sozial eta soziosanitariokoekin, jarduketak kontrastatzeko eta, hala badagokio, proposamenak baloratzeko eta bideratzeko.

4. ARDATZA: Ezagutzaren kudeaketa, prestakuntza eta ebaluazioa

HELBURU NAGUSIA: Aurrera egitea adikzioen, bere kausen eta ondorioen ikerkuntzan, dibulgazioan eta ezagutzan, baita arlo honetan planteatutako programen eta ekimenen ebaluazioan ere.

4.1 helburua Adikzioen eremuko ezagutzaren garapena bultzatzea.

Ekintzak:

4.1.1 Monitorizazioarekin, genero-ikuspegiarekin, prebalentzia-ikuspegiarekin eta hainbat adikzio-substantziaren kontsumo-pautekin jarraitzea, baita EAEko biztanlerian azaleratzen ari diren jokabide-adikzioen egoerarekin eta bestelako arazoekin ere Euskadi eta Drogak inkestaren bidez, Osasunaren Inkestaren bidez eta horiek osasunean duten ondorioei buruzko ikerketa espezifikoaren bestelako ikerlan batzuen bidez. Adikzioen arloko ikerketan eta ezagutzan aurrera egiten jarraitu ahal izateko, prebalentziaren eta adikzio-substantzien kontsumo-pauten monitorizazioa indartzea, baita jokabide-adikzioen egoerari eta EAEko biztanleengan agertzen ari diren beste problematika batzuei dagokienez ere, genero-ikuspegia barne hartuz eta osasun-arloko desberdintasunen determinatzaile sozialak kontuan hartuta. Horretarako, gazteen eta helduen substantzia-kontsumoaren eta jokabide-adikzioen funtsezko adierazleei buruzko aldiari behingo datu esanguratsuak lortuko dira ikerketa-lan espezifikoaren bitartez, baita Euskadi eta Drogak inkestaren, Osasun Inkestaren eta beste azterketa interesgarri batzuen bitartez ere.

2021ean, EAEko adikzioei buruzko inkestaren edizio berria prestatzearekin lotutako hainbat alderdi landu dira. Alde batetik, galdetegia berrikusi da eta, behar berrien azterketan oinarrituta, funtsezko aldaketak egin zaizkio, denboran zehar monitorizazioari eustea ahalbidetzen duten arren, adikzioen fenomenoaren egungo egoerara hobeto egokitzen direnak.

Bestalde, EUSTATEkin lan egin da populazio-laginarekin estrategian eta diseinuan, eta berritasuna izan da edizio honetan 74 urtetik gorako pertsonak sartzea.

Gainera, izapide guztiak prestatu dira inkestaren landa-lana lehiaketa publikora ateratzeko.

4.1.2 Lankidetzaren egituratua mantentzea adikzioen ikerketan eta ezagutzan lan egiten duten erakundeekin.

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak lankidetzaren hitzarmen bana du adikzioen arloko jakintza ikertu eta garatzeko SIIekin (Euskadiko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroa) eta Droga-mendekotasunen Deustuko Institutuarekin. 2021ean, lehenengoak 100.000 €-ko urteko aurrekontua izan zuen, eta bigarrenak, berriz, 73.200 €-ko partida bat.
- Bestalde, elkarlanean dihardu UPV/EHUekin.
- 2021ean, **ikerketa-ekintza proiektuari** ekin zitzaion berriro, **ZAINDU aplikazioa eskola-eremuan ebaluatzeko**, pandemiaren ondorioz eten baitzen. Etapa berrian Santiago Ospitaleko Psikiatria Unitatea gehitu da zentro gisa, eta berriro berrikusi da protokoloa.

4.1.3 **Jokoaren, teknologia digitalen eta jokabideko beste adikzio batzuen arlo espezifikoko ezagutza garatzea, fenomenoaren dimentsionatzeko, jokaeren kontzeptualizazioan eta sailkapenean sakontzeko eta balorazio-irizpide komunak ezartzeko.**

- Drogen kontsumoari, diruzko jokoari eta nerabeen beste jokabide arriskutsu batzuei buruzko azterlanak (Drogak eta Eskola Inkesta ere deitua) X. edizioan. DBHko, batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleek egiten dute. Deustuko Unibertsitateak egina.
- Jokoaren Behatokiak, non Adikzioen Zerbitzuko kide batek parte hartzen baitu, azterlan bat egin du **gazteriari eta jokoari** buruz, EAEko gazteen joko-pautak ezagutzeko. Hori 4.3.9. bis ekintzan jaso da.

4.1.4 **Ezagutza sortzea adikzioen eremuan gizonen eta emakumeen artean dauden diferentziei eta espezifikotasunei buruz, bai eta adikzioen prebentzioan eta arretan generoen artean dauden desberdintasunei buruz ere.**

- «Emakumeak eta psikofarmakoak» izeneko aldizkari monografiko bat argitaratzea, mendekotasuna sortzen duten sendagai horien erabileran nabari diren genero-desberdintasunak ikusarazteko.

https://issuu.com/siis/docs/md_08/1?ff

- «Genero ikuspegia txertatzea emakumeen droga-kontsumoan» mintegia. 2021eko abenduaren 20an eta 21ean egin zen Deustuko Unibertsitatean.
- «Genero-ikuspegia gizonekin, droga-erabilerak eta adikzioak» mintegia. 2021eko uztailaren 12an eta 13an egin zen Deustuko Unibertsitatean.

4.2 helburua Adikzioen arloko garrantzizko ezagutzaren inguruko prestakuntza eta hedapena bultzatzea, bereziki eremu horretan lanean ari direnen artean.

Ekintzak:

4.2.5 Adikzioen Behatokia indartzea, adikzioen eremuan lan egiten duten profesionalen arteko informazioaren eta ezagutzaren hedapen-gordailu gisa.

Adikzioen Behatokiarentzako behar adina baliabide arautzea, martxan jartzea eta esleitzea, 1/2016 Legean adierazitako edukiak eta terminoak bete ditzan, hala, lidergo zientifikoaren funtzioa garatu ahal izango du ezagutzaren hedapenean eta iturriak eguneratzean; beren jarduera adikzioen eremuan garatzen duten profesionaleri eta arreta-programetan parte hartzen duten mugimenduei bideratuta dago.

Gainera, Haurren eta Nerabeen Behatokiaren eta Gazteen Euskal Behatokiaren aldetik aintzat hartu beharko dira planaren jarduketak, eta azterketa- eta informazio-elementuak aurkeztu beharko dituzte kontsumo-murrizketan eta substantzien eta adikzio-ohituren eskaeretan lan egiten duten erakundeen jarduketa osatzeko.

<http://www.euskadi.eus/gabia-droga-mendekotasunen-euskal-behatokia/>

- Adikzioen Zerbitzuak **eremu horri buruzko datuak** eskaintzen dizkie **hainbat erakunderi eta elkarteri** (Drogei buruzko Plan Nazionalari eta Gazteen Euskal Behatokiari, adibidez), eta elkarlanean aritzen da beste plan instituzional batzuk eta horien jarraipena egiteko (gizarteratzea, gazteria, familia...).
- SIIS (Euskadiko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroa) eta IDD (Drogamenpekotasunen Deustuko Institutua) erakundeekin lankidetzan, 5 **ikerketa-jarduera** egin dira, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin sinatutako hitzarmenen eta kontratuaren esparruan:
 - Drogen kontsumoari, diruzko jokoari eta DBHOko ikasleen beste jokabide arriskutsu batzuei buruzko ikerketa. IDD
 - Genero-indarkeriaren biktima diren eta drogak kontsumitzen dituzten emakumeak detektatzeko (deribatze edo esku hartze) protokolo bat egitea genero-ikuspegitik. IDD
 - Adinekoen droga-kontsumoari buruzko azterlan monografikoa. SIIS
 - COVID-19ak droga-kontsumitzaileen artean izan duen inpaktuari buruzko azterlan kualitatiboa. SIIS
 - COVID-19ari eta mendekotasunei buruzko azterlan monografikoa.

4.2.6 Adikzioen arloan informazio eta ezagutza garrantzitsua hedatzeko kanalak ezartzea:

- Sare sozialetako komunikazio-estrategia.
- Laguntza argitalpenetan eta izaera orokorreko prestakuntza-jardueren antolakuntzan.
- Osasun Sailaren Adikzio Zerbitzuaren eta Euskadiko Droga Mendekotasunen Dokumentazio Zentroaren (Drogomedia) webgunearen garapena eta hedapena, funts dokumentala handituz eta tresnak gehituz.

- **GABIA Adikzioen Behatokiak** EAEn egindako **azterlan zientifikoak** zabaltzen ditu, bai eta adikzioen eremuko profesionalentzat interesgarriak diren beste ingurune batzuetako dokumentu teknikoak ere.

<https://www.euskadi.eus/informazioa/argitalpen-teknikoak/web01-a3gabia/eu/>

Halaber, adikzioen arloko hainbat albiste eta ekintza garrantzitsu zabaltzen ditu. Gainera, arriskuei aurrea hartzeko lerroan jasotako laginen analisiaren alerta-txostenak eta toxikotasun-emitzak argitaratzen ditu.

<https://www.euskadi.eus/informazioa/alerta-sistema-gabia/web01-a3gabia/eu/>

- **Drogomedia dokumentazio-zentroak**, webgunearen bitartez eskaintzen duen informazioaz gain, Facebookeko eta Twitterreko profilak ditu (@Drogomedia).

<https://www.drogomedia.com/eu/>

- Droga-mendekotasunen Deustuko Institutuak antolatzen dituen sinposio eta tailerren edukiak argitaratzeko elkarlanean aritzen da.

4.2.7 Prestakuntza-ekintzak garatzea eta dibulgazio-materialak sortzea, adikzioen eremuan lan egiten duten profesionalentzat, haien beharrak aztertuz, eta horrekin batera ekitatearen ikuspegia kontuan hartzea.

- **Droga-mendekotasunen Deustuko Institutuak (IDD)** Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin antolatutako urteko mintegiak.

- Droga-mendekotasunen Deustuko Institutuarekin (IDD) eta Euskadiko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroarekin (SIIS) urtero sinatutako lankidetzeta-hitzarmenen esparruan egindako **ikastaroak eta tailerrak**, adikzioen eremuan lan egiten duten profesionalentzat:

Berdintasunaren arloko prestakuntza-jarduerak

2017	SIIS	Tailerra	Alkoholaren prebentzioko jardunbide egokiak identifikatzea
	IDD	Jardunaldia	Droga-kontsumoa prostituzio-testuinguruetan
		Jardunaldia	Droga-mendekotasunetan genero-ikuspegia txertatzea
		Jardunaldia	Gizarte-programen emaitzen ebaluazioa: ikerketa-metodologia eta eraginkortasunaren balorazioa
2018	IDD	Jardunaldia	Emakumeen gaixoberritzeen prebentzioa genero-ikuspegitik
		Jardunaldia	Genero-ikuspegia droga-kontsumoan eta beste adikzio batzuetan
		Jardunaldia	Teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak erabiltzen dituzten programa eta proiektu sozialen ebaluazio-ikerketa
	Ikastaroa	Laneko droga-kontsumoaren prebentzioari buruzko sentsibilizazioa	
2019	IDD	Jardunaldia	Jokabide-adikzioak (harreman-mendekotasunak, erosketa konpulsiboak, ludopatia, Interneten eta sare sozialen erabilera desegokia)
		Jardunaldia	Gazteen eta nerabeen artean substantziarik gabeko adikzioak antzemateari, prebenitzeari eta horietan esku hartzeari buruzko mintegia
		Jardunaldia	Teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak erabiltzen dituzten programa eta proiektu sozialen ebaluazio-ikerketa
		Jardunaldia	Emakumeak eta drogak Gaixoberritzeen prebentzioa genero-ikuspegitik
		Jardunaldia	Genero-ikuspegia droga-kontsumoan eta beste adikzio batzuetan
2020	IDD	Jardunaldia	Adikzio-jokabideak prebenitzeko modu berriei buruzko mintegia
		Ikastaroa	Esku-hartze praktikoa jokabide-adikzioekin
		Tailerra	Genero-ikuspegia gizonekin, droga-erabilerak eta adikzioak
2021	IDD	Jardunaldia	Kalamua gazteen artean, arriskuak eta esku hartzeko proposamenak
		Jardunaldia	«Genero-ikuspegia gizonekin, droga-erabilerak eta adikzioak» mintegia
		Jardunaldia	«Ikerketa-metodologia: datuen bilaketa, datu-base bibliografikoak, adikzioen bilakaeraren azterketa, gizarte-errealitatearen azterketa» mintegia
		Jardunaldia	«Genero ikuspegia txertatzea emakumeen droga-kontsumoan» mintegia
		Jardunaldia	«Mendekotasunen prebentzioa COVID-19aren osteko aroan» workshopa
		Jardunaldia	«Genero-indarkeria droga kontsumitzen duten emakumeengan» jardunaldia
			Droga-mendekotasunen arloko aurrerakuntzei buruzko sinposioa: «Adintsuen droga kontsumoari nola heldu».

4.2.8 Jokabide-adikzioei buruzko prestakuntza-programa berezia garatzea, adikzioen eremuan lan egiten duten profesionaleri, lehen mailako arretako osasun-zerbitzuei, gizarte-zerbitzuei eta hirugarren sektoreari zuzenduta; programa horrek kontuan hartuko ditu gizonen zein emakumeen berezitasunak.

Ekintza hori ezin izan da egin.

4.3 helburua Adikzioen arloko programa publikoak ebaluatzeko sistema bat garatzea eta ezartzea.

Ekintzak:

4.3.9 Gauzatutako edo lagundutako programen eta ekimenen esparru metodologikoa eta jarraipen- eta ebaluazio-pautak garatzea, genero-ikuspegia kontuan izanda.

- Programen jarraipen- eta ebaluazio-pautei dagokienez, aldez aurreko jarraipen-txostenetan adierazi zenez, 2018az geroztik adikzioen arloko laguntzak izapidetzeko plataforma bat abian jartzen da, eta horrek aukera ematen du toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak egindako programak eta proiektuak zehatzago ebaluatzeko. Izapidetzeko plataforma horretan, datu guztiak iraultzen dira adierazle-serie itxi baten arabera sailkatuta. Hala, erakunde eskatzaileek erregistratutako informazioa estandarizatu eta uniformatzen da, eta, horri esker, estatistika-azterketa egin daiteke. Urtez urte berrikusi eta etengabe hobetzen da.

4.3.9 bis Planaren ebaluazio egokia egiteko, adierazle homogeneousak eta datu eguneratuak sartzeko, bai eta planaren helburuak eta horretarako planteatzen diren ekintzak adierazleen arabera sailkatzeko ere, adituen eta administratibotik kanpoko organo independenteen esku utziko da Adikzioen VII. Planaren ebaluazioa.

- Adikzioen intzidentzia eta bilakaera ezagutzeko, Eusko Jaurlaritzak honako inkesta hauen bidez lortutako informazioa du:

- Adikzioen inkesta 2017
<https://www.euskadi.eus/informazioa/euskadi-eta-drogak/web01-a3gabia/eu/>
- Euskal Osasun Inkesta 2018
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_enc_salud_2018/eu_def/adjuntos/DatuGarrantzitsuak_EAEOI2018.pdf
- Drogak eta Eskola 2018
<http://www.deusto-publicaciones.es/index.php/main/libro/1267>
- Drogei buruzko Plan Nazionalak (Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa) egindako EDADES eta ESTUDES inkestak.
https://pnsd.sanidad.gob.es/profesionales/sistemasInformacion/sistemaInformacion/encuestas_EDADES.htm
https://pnsd.sanidad.gob.es/profesionales/sistemasInformacion/sistemaInformacion/encuestas_ESTUDES.htm

- Jokabide-adikzioei dagokienez, Jokoaren Euskal Behatokiak txosten exekutibo bat argitaratu zuen 2021ean: «**Gazteak eta jokoak Euskal Autonomia Erkidegoan**».

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/copia_joba_public_observ/eu_def/Gazteria-eta-Jokoa-EAEn.pdf

Hainbat gai jorratzea, hala nola: joko-pautak; jokoari lotutako arazoak dituzten pertsonen ehunekoak; sozializazio-prozesua eta gazteek ausazko jokoei buruz duten pertzepzioa. Halaber, gazteen lagin adierazgarriago bat hartu, eta zeharkako analisi bat egin da jokoaren modalitatearekin, aurrez aurreko jokoari eta online jokoari dagozkien portaerak bereizteko.

- **EAEOI 2018:** osasunari buruzko inkesta hori 5 urtean behin egiten da, eta aukera ematen du EAEko biztanleriaren osasunaren argazki finko bat lortzeko, arreta sanitarioaren beharrak detektatzeko eta baliabideen esleipen egokia errazteko. Osasunarekin lotutako jokabideen barruan, tabakoaren eta alkoholaren kontsumoaren prebalentzia aztertzen du, eta, ondorioztatzen duenez, azken urteetan tabakismoak etengabe egin du behera. Era berean, murriztu egin da ohiko edaletzat hartzen diren pertsonen proportzioa, hau da, gutxienez astean behin edaten dutenena.
- 2017tik, 2021eko edizio honetan bezala, Adikzioen Zerbitzuak ebaluazioak egiten ditu Adikzioen Planaren garapenari buruz urtero, eta ebaluazio horietan prozesu-adierazleen datuak jasotzen dira. Halaber, planaren azken ebaluazioa egiten ari gara, ardatz eta jarduketa-eremu guztietan egindako lanaren irismenari buruzko informazio kuantitatiboarekin, etorkizunean jarraitu beharreko lan-lerroak zein izan daitezkeen baloratzeko asmoz.

4.4 helburua Eremu honetan egin duten lanagatik nabarmendu diren ekimenak aitortuak izan daitezen bultzatzea.

Ekintzak:

4.4.10 Pertsona edo erakunde jakin batzuk adikzioen prebentzioan, eskaintzaren murrizketan, arriskuen murrizketan, laguntzan, gizarteratzean prestakuntzan edo ikerketan gauzatu duten lana edo ibilbidea guztien aurrean aintzatesteko ekintzak eta ekimenak bultzatzea. Horretarako eraturako epaimahaietan gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatuari eutsi behar zaio, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, jasotako irizpideak bete daitezzen. Lege horren ondoretarako, pertsona aintzeko administrazio-organoetan, ordezkariak orekatutzat hartuko da, hain zuzen, sexu biek gutxienez % 40ko ordezkariak izatea.

- 2021ean, 2020an argitaratutako jardunbide onenak eta ibilbide profesionala aitortzeko deialdiak dinamizatzen jarraitu da.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/09/2003638e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/09/2003637e.pdf>



- Epaimahaiaren jarduketa bultzatu eta babestea aintzatespen horien lehen deialdian.
 - Hautagaitzak baloratzeko bileren deialdia.
 - Bileretan egotea, hitzik eta botorik gabe, zalantza teknikoak argitzeko.
 - Epaimahaiaren epaitzarako akta-eredua egitea.
- EAEko adikzioen arloko 2020-2022 jardunbide onenak eta 2020-2024 lanbide-ibilbidea aintzatesteko ebazpenak argitaratzea eta jakinaraztea.
 - EAEko adikzioen arloko jardunbide onenaren aintzatespena 2020-2022: **UD@ proiektua**, Arrasateko San Juan de Dios Ospitalearen eta Aretxabaleta Kirol Elkartearen arteko lankidetzaren emaitza.
 - EAEko adikzioen arloko jardunbide egokien aipamen espezifikoak 2020-2022: Barrualde-Galdakaoko ESiko Psikiatria Zerbitzuko **Unitate Duala** eta **ERDU proiektua**, non JEIKI, GIZAKIA, AGIPAD eta ETORKINTZA fundazioek parte hartzen baitute.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/03/2101893e.pdf>

- EAEko adikzioen arloko ibilbide profesionalaren aintzatespena 2020-2024: **Etorkintza fundazioa**.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/03/2101892e.pdf>

- Erakunde parte-hartzaileei eta sarituei eskerrak emateko mezu elektronikoak.

- Osasuneko sailburu Gotzone Sagarduik «Elkar Eginez» sari eta diplomak banatu zituen Bilboko Zabalguneko eraikinean, 2021eko ekainaren 17an. Pandemiaren ondorioz, 40 pertsona bertaratu ziren.

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/70055-departamento-salud-entrega-por-primera-vez-reconocimiento-elkar-eginez-por-trabajo-ambito-las-adicciones-cuatro-entidades-vascas>



5. ARDATZA: Lidergoa eta koordinazioa

HELBURU NAGUSIA: Aurrerantzean ere saiatu beharko dugu adikzioen arloan zeresana duten eragileen sistemak funtzionamendu koordinatua, bateratua, eraginkorra eta efizientea izan dezan.

5.1 helburua Adikzioen araudi berria eta VII. plana hedatzea, aplikatzea eta garatzea.

Ekintzak:

5.1.1 Araudiaren eta planaren helburuak eta lerro orokorrak inplikaturako eragile guztiei jakinaraztea, eta beraiekin partekatzea.

- **Adikzioen VII. Planaren txostena** egitea, 2020. urteari dagokionez, planean sartutako lerroak arian-arian ezartzeari buruzko ikuspegi orokorra ebaluatu eta emateko. Zenbait adierazle oinarri hartuta, jarraipena eta balorazioa egin da, eta aldi horretan egindako ekintzak zehaztu dira.
- 2020ko Adikzioen VII. Planaren txostena Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordeari bidaltzea.

5.1.2 Administrazio-maila guztietan arautegiaren aplikazioaren arloan eskumenak dituzten ordezkariak parte hartuko duten laneko mekanismoak ezartzea, arautegiaren ulermenean sakontzeko eta udal-ordenantzen garapenean pautak komunak definitzeko helburuarekin.

- **Adikzioen Erakunde arteko Batzordea** 2021eko azaroaren 24an bildu zen.
- Bestalde, **Adikzioen Euskal Batzordea** 2021eko abenduaren 1ean bildu zen.
- **Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia** 2021eko ekainaren 17an bildu zen.
- **Adikzioen Euskal Batzordea** 2021eko ekainaren 17an bildu zen.
- **Jokoaren Euskal Behatokia** 2021eko maiatzaren 25ean eta azaroaren 15ean bildu zen.

5.1.3 Tokiko egoerara egokitutako prebentzioko udal-planak garatzea, sustatzea eta babestea plan honekin bat etorritik, eta gaur egun indarrean daudenak sendotzea, beharrezkoa den koordinazio-maila bermatuz eta komunitatearen partaidetza eta sektoreen arteko lana sustatuz.

Udal-planen garapena bultzatzeko, Eusko Jaurlaritzak, adikzioen arloko laguntzen aginduaren bidez, toki-erakundeek tokiko planak diseinatzeko eta egiteko laguntza eskatzeko aukera zabaltzen du. Horrela, tokiko planak etengabe eguneratzea eta udaletako eta mankomunitateetako prebentzio komunitarioko taldeak sortzea lortuko da.

**Toki-erakundeek (udalek, mankomunitateek eta Arabako Foru Aldundiak)
indarrean dituzten tokiko planen kopurua**

	Tokiko planak
2017	46
2018	47
2019	47
2020	47
2021	47

Oharra: indarrean dauden edo prestatzen ari diren tokiko planen kopurua jaso da.

2021ean aurreko urteetako tokiko planen kopuru berari eutsi zaio, hots, 47 toki-erakundek dute adikzio-plana: 23 Bizkaian, 20 Gipuzkoan eta 4 Araban.

Bizkaian honako hauek garatu dute tokiko plana: Arratia, Bermeo, Enkarterri, Lea-Artibai, Mungialde, Uribekosta eta Txorierriko mankomunitateek, eta Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Erandio, Ermua, Galdakao, Getxo, Leioa, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Ugao-Miraballes eta Zierbenako udalek.

Gipuzkoan hauek: Bideberriko mankomunitatea, eta Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Donostia, Eibar, Elgoibar, Eskoriatza, Hernani, Hondarribia, Irun, Oñati, Ordizia, Tolosa, Usurbil, Zarautz eta Zumaiaiko udalek.

Eta Araban, honako hauek: Arabako kuadrillek (Foru Aldundiari lotuak) eta Amurrio, Laudio eta Gasteizko udalek.

Horrek esan nahi du EAEko biztanleriaren % 80 baino gehiago adikzio-plana duen udalerriren batean bizi dela.

Tokiko planen esparruan egindako programen eta proiektuen kopurua

	Bizkaia		Gipuzkoa		Araba		Proiektuak guztira
	Programak	Proiektuak	Programak	Proiektuak	Programak	Proiektuak	
2017	23	191	18	117	3	20	328
2018	22	77	20	91	3	9	177
2019	22	79	18	93	3	7	179
2020	21	80	16	71	2	11	162
2021	22	85	18	83	3	13	181

Tokiko planen esparruan egindako lanaren ondorioz, 2021ean udalek eta mankomunitateek 181 proiektu aurkeztu dituzte Eusko Jaurlaritzaren laguntzen aginduan; horietatik 85 Bizkaian garatu dira, 83 Gipuzkoan eta 13 Araban.

Esan behar da 2018tik aurrera proiektuen kopuruak behera egin duela, eta hori azken urteetan egin den laguntzen izapidetzearen berregituraketaren eta berrantolaketaren ondorioz izan dela, kasu askotan ekintzak edo esku-hartzeak proiektu beraren barruan bildu baitira.

5.1.3 bis Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen erregelamendu-garapena osatzea.

2021ean, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea ez betetzeagatiko zehapenak ordeztzeko dekretu-proiektua egin da. Helburua da zehapenak ordeztzeko araubidea arautzea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 93. artikuluan aurreikusitakoa, eta, horretarako, ordeztzeko neurriak eta horiek aplikatzeko prozedura ezartzea. 2022an indarrean jartzea aurreikusten da.

5.2 helburua Adikzioen eremuan inplikaturik dauden eragile publiko eta pribatuen arteko lidergoa, koordinazioa eta elkarrekiko babesa indartzea, sektorearteko lana sustatuta eta sinergiak aprobetxatuta.

Ekintzak:

5.2.4 Adikzioen arloan prebentzio- eta sustapen-talde tekniko komunitarioak sortzeko eta mantentzeko, komunitate-mailako prebentzio-programak garatzeko eta arriskuen eta kalteen murrizketarako proiektuak gauzatzeko eta jokabide osasungarriak sustatzeko dirulaguntzen agindua mantentzea eta hobetzea.

- Osasun Sailaren adikzioen arloko **laguntzen agindua**. 2021erako, 236.000 euro mantenduko dira, arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko, hirugarren sektoreko erakundeen proiektuak finantzatzeari begira. Kopuru hori «EAEn ausazko jokoarekiko adikzioa eta substantziarik gabeko bestelako adikzioak prebenitu eta tratatzeko» proiektuak diruz laguntzeko erabiliko da.

Osasun Sailaren adikzioen arloko laguntzen agindua

	EHAako argitaratze-data	Zenbatekoa
2017	Abuztuak 28	2.618.400
2018	Ekainak 29	2.618.400
2019	Uztailak 18	2.618.400
2020	Ekainak 15	2.854.400
2021	Uztailak 9	2.854.400

Deialdiak:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/08/1704215e.pdf>
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803388e.pdf>
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/07/1903493e.shtml>
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/06/2002323e.pdf>
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/07/2103911e.pdf>

Emandako dirulaguntzen ebazpenak:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/03/1801655e.pdf>
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/05/1902344e.pdf>
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/04/2001882e.pdf>
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2021/05/2102644e.pdf>
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/05/2202280e.pdf>

- Adikzioen arloko laguntzak **Osasun Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren** barnean sartzen dira.

<https://www.euskadi.eus/sail-plana/osasun-sailaren-diru-laguntzen-plan-estrategikoa-2021erako-eduki-orokorra/web01-a2inform/eu/>

5.2.4 bis Adikzioen prebentzioan eta arretan inplikaturako agente publiko eta pribatu guztien aldetik, Hirugarren Sektore Sozialaren garrantzia aitortzea, sektorearteko koordinazioa hobetzea eta sareko lana areagotzea, lehentasunezko premietara eta errealitate berrietara egokituz.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik eta foru-aldundien, udalerrien, mankomunitateen eta kuadrillen aldetik, sektorearteko ekintza eta adikzioen arloan inplikaturako dauden eragileen arteko koordinazioa sustatzea, eta sozietate zibil osoaren partaidetza eta inplikazio aktiboa sustatzea.

2021ean, bilerak eta topaketak egin dira adikzioen arloko hainbat eragilerekin:

- **Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia** 2021eko ekainaren 17an bildu zen.
- **Adikzioen Euskal Batzordea** 2021eko ekainaren 17an batu zen.
- **Jokoaren Euskal Behatokia** 2021eko maiatzaren 25ean eta azaroaren 15ean bildu zen.
- EAEko irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko 2021eko ekitaldian dirulaguntzak emateko balorazio-batzordea (2021eko uztailaren 29ko AGINDUA, lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena) hainbat aldiz bildu da, bi zuzendaritzen arteko lana koordinatzeko eta gainfinantzaketa saihesteko.
- Hirugarren sektoreko erakundeekin egiten diren bilerak eta harremanak Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren eta, ondorioz, Adikzioen Zerbitzuaren ohiko zereginaren parte dira.
- **Tabakismoari buruzko lantaldea Osasun Ministerioarekin eta beste autonomia-erkidego batzuetako ordezkariekin** bideokonferentzien bidez bildu zen 2021eko martxoaren 23an, uztailaren 20an, irailaren 20an eta abenduaren 21ean.

5.2.5 Arlo horretan erakunde pribatuek egiten dituzten jarduerak bultzatzea, eta Adikzioen Erakundearteko Koordinazio Batzordearen, Adikzioen Euskal Batzordearen eta ad hoc sortutako beste foro operatiboan edo teknikoan bitartez, eragileen eta erakundeen arteko lankidetzaren bultzatzea, betiere gizonen eta emakumeen partaidetza orekatua izanda, eta genero-ikuspegia eta kolektiboan eta egoeren aniztasuna aintzat hartuta.

Horretarako, hainbat bilera egin dira Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzarekin. Horiek 5.1.2 ekintzan jaso dira.

5.2.6 Drogen Plan Nazionalarekin koordinazioa mantentzea, baita Estatuko edo Europako beste egitura batzuekin ere.

Eusko Jaurlaritzak Drogen Plan Nazionalak deitutako bileretan eta foroetan parte hartzen du.

COVID-19ak sortutako egoera dela eta, bilerak online egin dira.

- **Drogen Plan Nazionalaren Batzorde Sektorialak;** bideokonferentzia bidez egin ziren 2021eko maiatzaren 28an, azaroaren 18an eta abenduaren 3an.
- Adikzioen ÁGORA topaketak, Drogen Plan Nazionalerako gobernuaren ordezkariak antolatutak. Topagune birtual bat sortzea du helburu, adikzioei buruzko interes/gaurkotasuneko gaiak jorratzeko, eta eremu horretako hainbat profesionalek, kudeatzailek eta erakundek maila nazionalan eta nazioartekoan egindako lana agerian uzteko. 2021eko otsailaren 18a (jokoari buruzko ikerketa), apirilaren 28a (Substantzia psikoaktiboen kontsumoa eta horren ondorioak), ekainaren 10a (Konfiskatutako ondasunen kudeaketa), urriaren 20a (Alkohola eta beste droga batzuk lan-eremuan) eta abenduaren 2a (Ingurumenaren prebentzioa adikzioetan).
- Eusko Jaurlaritzak ekarpenak egin dizkio Drogen Plan Nazionalaren Mendekotasunen 2021-2024 Ekintza Planari (2021eko azaroa).
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du **tabakismoari buruzko lantaldearen bileretan, Osasun Ministerioarekin eta beste autonomia-erkidego batzuetako ordezkariekin**. 2021ean, 2022-2025 aldirako Tabakismoa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Plan Integrala lantzen aritu da, eta 2022an zehar onetsiko da. Horretarako, bideokonferentzia bidezko hainbat bilera egin dira 2021eko martxoaren 23an, uztailaren 20an, irailaren 20an eta abenduaren 21ean.

Bileretan parte hartzeaz gain, nabarmentzekoa da Drogen Plan Nazionalan eskatutako agiri eta datu guztiak bidali ditugula. Era berean, Eusko Jaurlaritzak konfiskatutako ondasunen funtsaren deialdian parte hartuko du.

Konfiskatutako ondasunen funtsaren hitzarmena
(€-tan)

	Zenbatekoa
2017	367.000
2018	370.000
2019	370.000
2020	370.000
2021	370.000

5.2.6 bis Gazteen Euskal Kontseiluarekin elkarlanean, gazteek adikzioen gaiari buruzko lanean parte hartzea sustatzeko dinamikak eta prozesuak diseinatzea eta gauzatzea, berdintasun-politiketan garatzen ari den Bildur Barik programa erreferentzia gisa hartuta.

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan aritzen da urtero Gazte Plana. Plan horretan, adierazitako politika guztiak biltzen dira, gazteek adikzioen gaian parte har dezaten sustatzeko.

5.2.6 ter Unibertsaltasun-, elkartasun-, ekitate- eta jasagarritasun-printzipioekiko errespetua bermatzen jarraitzea Adikzioen VII. Planaren garapenean, ekintzak genero-ikuspegira eta adin-talde bakoitzaren egoera zehatzetara egokitu daitezten.

- Adikzioen Zerbitzuak lagundu egiten du prebentzioaren, detekzio goiztiarraren eta adikzioen arretaren arloko ekimenek **genero-berdintasunaren, adinaren, gizarte-klasearen eta hirigintza-eta landa-eremuaren ikuspegia** txerta dezaten.
- Gainera, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak bultzatzen dituen azterlan eta lanetan, partaidetza propioarekin zein kanpoko gauzatzearekin, aipatutako printzipioak txertatzen dira, honako hauek aintzat hartu daitezten: auzoen maila sozioekonomikoa; gizonen eta emakumeen parte-hartzea, beren beharretan oinarrituta; adin-taldeak, beren ezaugarriekin; eta hirien zein herrien ordezkartza.